

Filosofiako gradua. 3. maila, 1. lauhilekoa

GALDERA TEORIKO ETA PRAKTIKOAK

Hizkuntzaren filosofia II

2017/12/18



EGILEA: IRATI ZUBIA LANDA

AURKIBIDEA:

1.	Hizkuntza	naturalaren	
	semantika.....		2
2.	Hizkuntza	naturalaren	semantika
	intentsionala.....		6
3.	Modalitateak.....		
		7
4.	Intentzionalitatea/intentsionalitatea.....		
		14
5.	Denborazko		
	logika.....		
		18
6.	Semantika:	de	dicto/de
	modalitateak.....		re
			21
7.	Kaplan		eta
	erakusleak.....		
		24
8.	Kaplan	eta	erakusleak
	2).....		(eta
			27
9.	Kaplan:	erakusleei	buruzko
	hausnarketa.....		
			28
10.	BI-dimentsiozko		
	semantika.....		31
11.	Inplikaturak.....		
		33
12.	Inplikaturak		(eta
	2).....		36
13.	Argudio		
	esentzialista.....		
		37

HIZKUNTZA NATURALAREN SEMANTIKA:

1. ariketa orria

1.- Kode batek, Morsearena esaterako, gramatkarik ba al du? Zergaitik? Zein da mota honetako Kode baten eta hizkuntza baten arteko aldea?

Kode batek, Morsearen kasu, ez du gramatkarik eta hain zuzen hortan datza kode horren eta hizkuntza baten arteko aldea. Hizkuntza formalak nahiz hizkuntza naturalak gramatika bat dute. Lehenarena algoritmikoa da, gramatika efektiboki definitu bat zeina mekanikoki erabaki daitekeen formazio erregelak aplikatuz adierazpen bat ongi formatua dagoen edo ez jakiteko. Bigarrenaren kasuan, gramatika ez-estandar bat topatuko dugu (esate baterako, ikusi euskararen eta erdararen arteko aldea) eta gainera, hizkuntza naturala dinamiko eta espontaneo izanik, sarri gramatika konplikatu egiten da eta normalean, hizkuntza naturala bera ere ez da horretaz konziente izaten. Morsearen kasuan, aldiz, ez da horrelakorik ematen, izan ere, bertan hizkiak, zenbakiak edota puntuazio ikurrak ordezkatzeko dituzten sinbolo konbinaketak badaude ere, ez da hauen arteko erlazioa arautzen duen eta gramatika kontsideratu dezakegun formazio erregelarik ematen.

2.- Zergaitik ikusten da semantika eta pragmatikaren arteko ebaketa arazo bat bezala?

Galdera honi erantzuteko, lehenik eta behin, R. Carrapen definizioen eskutik semantika eta pragmatika zer diren edo zertaz arduratzen diren argitzea ikusten dut egokiena. Semantika zeinu eta zeinuen bidez adierazten denaren inguruan dabil. Pragmatika ikur-sistemen eta beraien erabiltzaileen erlazioa aztertzeaz arduratzen da.

Semantika eta pragmatika elkarrekiko bereizita daudela kontenplatu izan da hizkuntza formalaz aritzen garenean. Proposizioen logikan adibidez, semantika kalkulu formal bidez egiten da, funtzio interpretatzaileak erabiliz, eta ez dago pragmatikaren beharrik. Aldiz, hizkuntza naturalera hurbiltzen garen heinean, konturatzen gara esanahiak hizketa ekintzen poderioz garatzen direla eta bide horretatik pragmatikara hurbiltzen gara eta semantika pragmatikatik eratortzen dela dirudi.

semantika


Hizkuntza formalean honakoa litzateke semantika eta pragmatikaren bereizketa adierazten duen eskema.

pragmatika


Eskema horretan, edukia eta esanahia argitzen dizkiguten adierazpen proposizionalak betierekoak dira eta esanahi konbentzionalak argitzen dizkigute. Hizkuntza naturalean, ordea, esanahiak finkatzeko ez dugu aski eduki proposizionalak ematen duten esanahi konbentzionalarekin, izan ere, sarritan testuingurua ere ezagutu beharko dugu.

Adibidez, norbaitek “Ni orain liburutegian nago” esango balu, honen esanahia argitzeko “ni”, “orain”, “liburutegia” eta “egon” adierazpenen esanahi konbentzionala jakiteaz gain, hizketa ekintza nork egin duen ere jakin beharko dugu eta are gehiago askotan testuinguruarekin batera asmo komunikatiboak ere sartzen dira jokoan. Adibidez, nire aitak “zure gela ez dago batere txukun” dionean, ziurrenik gela jasotzeko agindua ematen ibili daiteke, niri gela jasoaraztea da bere asmoa eta ez nire gelaren egoera besterik gabe deskribatzea. Testuingurua eta asmo komunikatiboak aztertzeko bidea hartzean, pragmatikaren eremuan sartzen gara.

Hau horrela, konturatzen gara semantikan bereizten diren kontzeptu nagusiak pragmatikaren bidez zehazten direla. Horregatik, gaur egun halako eskema proposatu da bien arteko erlazioa zehazteko.



Hala ere, eskema honek logikako hizkuntza formalari tokirik uzten ez diola iruditzen zait niri. Horregatik, F. Recanatiren ikuspegiarekin bat eginez, semantika eta pragmatikaren arteko bereizketa auzia ebazteko aproposagoa deritzot hurrengo eskema.



Eskema honek semantikak eta pragmatikak elkarbanatzen duten espazio bat dagoela iradokitzen dum baina semantikari logikan txoko independente bat gordetzen.

3.- Donnellanek deskribapen erabilera atributiboa eta erreferentzialaren artean egiten duen bereizketa semantikoa ala pragmatikoa da? Zergaitik?

Donnellanen bereizketa pragmatikoa da. Honela definitzen ditu bataren zein bestearen erabilera "Erreferentzia eta deskripzio definituak" (1996) artikuluan:

"Deskripzio¹ definitu bat bai espasen batean atributiboki erabiltzen duen hiztunak honako-ta-halakoa den edonori edo edozeri buruzko zerbait baieztatu du. Deskripzio definitu bat bai espasen batean erreferentzialki erabiltzen duen hiztunak, bestalde, entzuleak nori edo zeri buruz hitz egiten ari den identifikatzeko erabiltzen du deskripzio definitua, eta pertsona edo gauza horri buruzko zerbait baieztatu du." (Donnellan, 1966, 177. or)

Donnellanen bereizketa argi eta garbi pragmatikoa da. Izan ere, testuinguru batean edo bestean, hizketa asmo baten edo beste baten arabera, hiztunak deskripzioen erabilera baterantz edo besterantz joko du. Adibidez, "martinia edaten ari den gizona hiltzailea da" perpausaren esanahia zehazteko, testuingurua ezagutu behar dugu derrigorrez. Izan ere "martinia edaten ari den gizona" deskripzio definituaren esanahia oso bestelakoa izan daiteke. Festa batean barra ondoan gizon bat ikusten badut eta nire ustetan haren edalontzian martinia baldin badago, nire kideari "martinia edaten ari den gizona hiltzailea da" perpausaren bidez gizon jakin hori hiltzailea dela adierazten diot, eta ez du garrantzirik gizon hori benetan martinia edaten ari den edo ez, nire helburua, hots, erreferentzia, lortzen dudana bitartean. Aldiz, alkoholiko anonimoen bilera batean baldin banago, eta norbaitek bertara alkohola sartu duela susmatzen badut, "nor da martinia edaten ari den gizona?" galdetuko banu, "martinia edaten ari den gizona" deskripzioa betetzen duen norbaiten bila nabil eta deskripzio hori betetzen ez duen inor ez baldin badago gelan, kale egin du nire hizketa helburuak.

4.- Azaldu ezazue Russelek deskribapenaren teoriaren barruan lehen mailako eta bigarren mailako agerpenen artean egiten duen bereizketa. Adibideak erabili itzazue.

Bereizketa hau azaltzeko Russel berak "Denotatzeaz" (1905) testuan erabiltzen duen adibideaz baliatuko naiz.

Denotatzearen inguruko arazo batetik abiatzen da. Ordezkarritasun printzipioaren arabera, suposatzen da a eta b identikoak badira, batzuek egiazkoa den oro besteaz ere egiazkoa dela eta, hortaz, proposizio batean bata bestearengatik ordezka genezake proposizio horren egiabalia aldatu gabe. Har dezagun honako proposizioa: "George IV.ak Scott Waverky-ren egilea ote zen jakin nahi zuen". Badakigu Scott Waverky-ren egilea dela. Hau da, *Scott* eta *Waverky*-ren egilea identifikotzat

hartzen ditugu eta bata bestearengatik ordezkatu genezake. Hortaz, "George IV.ak Scott Scott ote zen jakin nahi zuen". Baina, emaitza honek problematikoa dirudi. Honi irtenbide bat bilatzeko, Russelek lehen mailakoe ta bigarren mailako deskripzioen teoria garatu zuen. Kontua da, "Scott" eta "Waverkyren egilea" ezin ditugula bata bestearengatik hain erraz ordezkatu. Honela bereizten ditu bi erabilerak Russelek:

" 'George IV.ak Scott Waverley-ren egilea ote zen jakin nahi zuen' diogunean, normalki 'George IV.ak Waverley gizon batek eta bakar batek idatzi ote zuen eta gizon hori Scott ote zen jakin nahi zuen' esan nahi dugu; baina baliteke honakoa esan nahi izatea ere: 'Gizon bakar eta bakar batek idatzi zuen Waverley eta gizon hori Scott zen'. Azken honetan 'Waverleyren egilea'-k azalpen *primarioa* du; aurrekoan, *sekundarioa*. Azken honela adierazi genezakeen, 'George IV.ak, Waverley idatzi zuen gizonari buruz, berori Scott zenentz jakin nahi zuen'. " (Russel, 1905, 72.or)

Ondorioz, kasu honetan "Waverley-ren egilea" soilik azalpen *primarioa* dagoen kasuan ordezkatu dezakegu "Scott"-engatik.

5.- Bereizi itzazue Strawsonek proposatzen dituen auresuposizioaren definizio semantikoa eta pragmatikoa.

6.- Zertan datza "Eserita dagoena zutik egon daiteke" esaldiaren anbiguotasuna?

Esaldi honek anbiguotasuna bere modalitatean datza. Izan ere, posibilitatea ulertzeko modalitate bat edo beste hartzen badugu kontuan, esaldia faltsutzat edo egizakotzat jo dezakegu. Har dezagun modalitate nomikoa, esaterako. Modalitate nomikoaren arabera, non *p nomikoki posibletzat jotzen den baldin eta bakarrik baldin p bateragarria bada lege naturalen konjuntio osoarekin* (Roca, 2015, 156.or). Aldiz, beste modalitate bat hartzen badugu kontuan, esaterako modalitate kontzeptuala, esaldia modu desberdin batean ulertuko dugu. Honela definitzen du Sonia Rocak modalitate mota hau: *p kontzeptualki posible da baldin eta bakarrik baldin p bateragarria bada egia kontzeptualen konjuntoko elementu guztiekin* (Roca, 2015, 161.or). *Eserita dagoen oro ez dago zutik*, adibidez *egia kontzeptual bat da*. Hau horrela, aipaturiko lehen modalitatea kontuan izanik "eserita dagoena zutik egon daiteke" esaldia egizakotzat joko dugu, aldiz bigarrena kontuan izanik faltsutzat.

7.- "Baldin lore hau gorria bada, orduan koloreduna da" adierazpen perpaus hau analitiko delako esan genezake? Zergatik?

Bai, izan ere, perpaus honen egiabalia egiatzeko delako zehaztu dezakegu lore hori begiratu gabe. Perpaus analitikoek, esate baterako "euria ari du eta ez du ari" hauen egiabalia zehazteko aukera ematen digute *kanpoko mundu* deritzogun horri begiratzeko premiarik gabe. Esan genezake, *a priori* posible delako perpaus horien egiabalia zehaztea. Aldiz, izaera sintetiko dutenekin hori ez da gertatzen. Esate baterako, "mahai gainean katu beltz bat dago" perpausaren egiabalia zehazteko, honen hedadura hartu behar dugu kontuan, hots, mahai zehatz horri begiratu beharko diogu. Predikatu analitikoetan subjektuan dagoena baieztatzen da predikatuan, ez da ezer berririk gehitzen. Gorria delako diogunean esaten dugu gorri kolorea duela, hots baduela kolorea. Beraz, "orduan koloreduna da" predikatuak ez du ezer berririk baieztatzen.

Aldiz, "lore hau koloreduna bada, orduan gorria da" edukiko bagenu, perpaus hori sintetiko izango litzateke, izan ere lore bat koloreduna izateak ez digu hau gorria delako esaten, hori egia den edo ez erabakitze kanpoko mundura jo eta lore jakin horren kolorea begiratu beharko genuke.

8.- Zein da "Lore hau gorria da" eta "Lore hau koloreduna da" adierazpen perpausen egia-baldintzen arteko erlazioa lore berari buruz ari bagara?

“Lore hau gorria da” perpausetik logikoki ondoriozta dezakegu “lore hau koloreduna da”, batak bestea inplikatzeko baitu. Hortaz, “lore hau gorria da” perpausa egiazkoa bada, “lore hau koloreduna da” perpausa ere egiazkoa izango litzateke. Alderantziz, ordea, ez da gauza bera gertatzen, “lore hau koloreduna da” egiazkoa izan daiteke, baina “lore hau gorria da” faltsua.

9.- “Egusentiko izarra” eta “Ilunabarreko izarra” adierazpenek intentsio bera al dute? Zergatik.

Ez, estentsio bera dute, bi adierazpenen erreferentzia Artizarra delako, baina ez dute intentsio bera. Estentsio bera duten neurrian “Babiloniarrek Egusentiko izarra ikusi zuten” proposizioan “Egusentiko izarra” “ilunabarreko izarra” adierazpenagatik ordezkatzeko aukera izan behar dugu. Alabaina, intentsio bera ez dutenez, esate baterako egoera epistemikoak jokoan sartzen direnean (ustek, esaterako), ordezkagarritasun printzipioa ez da betetzen. Babiloniarrek, zeruan bi gorputz ezberdin ikusten zituztela uste zuten. Hortaz, “goizero goizero Babiloniarrek Egusentiko izarra ikusten zutela uste zuten” proposizioan ezin da ordezkapen hori egin, “goizero goizero Babiloniarrek Ilunabarreko izarra ikusten zutela uste zuten” proposizioa faltsua baita.

10.- “Bin Laden ez da gizonezkoa” eta “Bin Laden ez bada gizonezkoa eta Bin Laden emakume bizarduna bada, orduan emakume bizarduna da” perpausak intentsio berbera dute? Zergatik?

11.- David Kaplanek proposatzen duen *jitea* (“Character”) eta edukiaren arteko bereizketa nola uler dezakegu esanahi linguistikoaren kontzeptu intuitiboarekin lotuta?

David Kaplanen karakterrak eduki bat finkatuko digu testuinguru bakoitzean. Esanahi konbentzionalari loturik ulertu daiteke karakterra, hiztegiaren agertzen den definizio baten modura. Definizio horri esker, jakingo dugu nola erabili hitza eta baita hitz horren atzean ezkututzen den edukia zein den aldi bakoitzean. Adibidez, “mahai” hitzaren karakterra ezagutua, jakingo dut “liburutegiko mahai zuria da” adierazpenaren atzean dagoen edukia “nire etxeko mahai zuria da”-renetik bereizten.

12.- Aztertu ondoko argudioen egitura logiko-semantikoa: (hau paperean egin dut)

HIZKUNTZA NATURALAREN SEMANTIKA INTENTSIONALA.

2. ariketa orria.

Itzul itzazue ondoko perpausak eragile modalak erabiliz.

1. Agian Londonen euria ari du.

p: Londonen euria ari du.

$\neg \square p \wedge \diamond p$

2. Londonen euria ari du baina nik ez dut uste hori gertatzen ari denik.

p: Londonen euria ari du

i: ni

Bix: i-k x uste izan

$$p \wedge \neg B_i p$$

3. Behar bada ez didazu ulertzen, baina ez da beharrezkoa.

Uxy: x-k y ulertu

$$\diamond \neg U_{xy} \wedge \neg \square U_{xy}$$

4. Gaur astelehena izan daitekeenez, derrigorrez astelehena izan daiteke

p: Gaur astelehena da

$$\diamond p \rightarrow \square \diamond p$$

5. Ezinbestekoa dena, benetan gertatzen da.

$$\square \phi \rightarrow \phi$$

6. Derrigorrez gerta daitekeena, beharrezkoa da gertatzea.

$$\square \diamond \phi \rightarrow \square \phi$$

7. Behar bada euria egingo du eta agian beharrezkoa da euria egitea.

p: euria egitea

$$\diamond p \wedge \neg \square p \wedge \diamond \square p$$

8. Mirenek bere etxean egon behar du.

p: Miren bere etxean dago

$$\square p \wedge \neg \diamond \neg p$$

9. Mirenek etxean egon beharko luke.

p: Miren bere etxean dago

$$\square p \wedge \diamond p \wedge \diamond \neg p$$

MODALITATEAK:

3. ariketa orria

1.- Zer dira modalitateak? Zergatik dira interesgarriak filosofikoki?

Modalitateak posibilitate eta beharrezkotasunaren nozioak biltzen dituzten fenomenoak dira. Modalitateen azterketa oso interesgarria da filosofian, izan ere, filosofoek *izana* baino *izan beharra* edo *izan beharko lukeena* dute aztergai sarritan. Premisa modalen garrantzia esate baterako etikan ikusten da. Adibidez, jakin badakigu emakumeon zapalkuntza existitzen dela. Alabaina, ikuspuntu filosofiko batetik gertakari horren inguruan ea zapalkuntza hori aldatzea posible den, beharrezkoa den edo gisa honetako galderak etortzen zaizkigu burura eta galdera horiei erantzuna bilatzeko ezinbestean nozio modalak erabiliko ditugu.

2.- Zergatik diogu modalitateek testuinguru intentsionalak sortzen dituztela? Adibideak jarri itzazu.

Testuinguru intentsional bat sortzeko nahikoa da eragile modal bat sartzea, izan ere, ikusiko dugu nola ez den posible izango ordezkapen printzipioa betetzen manetentzea. Adibidez,

(i) Filosofiako 3. mailako ikasle kopurua 10ekoa da. (egiazkoa)

(ii) $10 > 7$ (egiazkoa)

Ordezkapena egin eta:

(iii) Filosofiako 3. mailako ikasle kopurua zazpi baino handiagoa da. (egiazkoa)

(iii) perpausaren egiabalia ez da aldatzen ordezkapena egin ostean.

Alabaina, modalitatea jokoan sartzen denean:

(i) Filosofiako 3. mailako ikasle kopurua 10ekoa da.

(ii) $\square 10 > 7$

Ordezkapena egin eta: (iii) Filosofiako 3. mailako ikasle kopurua beharrezkoa da zazpi baino handiagoa izatea.

(iii) Perpausa faltsua da, egiabalia aldatu egin da, testuinguru intentsional bat sortu dugu modalitatea sartu orduko.

3.- Zeintzuk dira modalitateen artean bereizten diren mota nagusiak? Bereizketa ageriagokoa egiteko adibideak ipin itzazu.

Hauek dira modalitate mota nagusiak modalitate epistemikoak, aletikoak eta deontikoak dira.

- Modalitate epistemikoak.

Modalitate epistemikoetan p epistemikoki *posible* da S sujetuarentzat baldin eta bakarrik baldin p S_k dakienarekin bateragarria bada; eta p epistemikoki beharrezkoa izango da baldin eta bakarrik baldin p S -k dakienetik jarraitzen bada. Adibidez, epistemikoki posiblea da guretzat "Abenduko hilabetean euria egingo du" proposizioa edo "Planeta kopurua 8 bada orduan, planeta kopurua 7 baino handiagoa da" proposizioa epistemikoki beharrezkoa da.

- Modalitate aletikoak

Modalitate aletikoetan p posible edo beharrezko izango da egia bilduma baten arabera, egia horiek norbaitek ezagutzen dituen edo ez kontuan hartu gabe. Esate baterako. "Sokrates gizakia bada orduan Sokrates hilkorra da" proposizioa aletikoki beharrezkoa da modalitate metafisikoaren arabera.

- Modalitate deontikoak

Modalitate deontikoetan modalitate moralak sartzen dira jokoan. Esate baterako, moral kristauean p moralki posible da baldin eta bakarrik baldin p moral kristauean elementuekin bateragarria bada edo p moralki beharrezkoa da moral kristauean elementuei jarraitzen badie. Adibidez, moral kristauean beharrezkoa da “pekatu egin ostean aitortza egin behar da” porposizioa.; edo posible izango da “Haur hau batailatzen badugu zerura joan daiteke” proposizioa.

4.- Zergaitik esaten da *beharrezkoa izan* eta *litekeena* adierazteko erabiltzen ditugun eragile logikoak *dualak* direla beraien artean?

Beharrezkoa izan (\square) eta *posible izan* (\diamond) adierazteko eragile logikoak dualak direla diogu bata bestearaen terminoetan definitu daitezkelako. P posible izateak ($\diamond p$) esan nahi du ez dela beharrezkoa p ez izatea ($\neg \square \neg p$) esan nahi du. P beharrezkoa izateak ($\square p$) p ez izatea ez dela posible ($\neg \diamond \neg p$) esan nahi du.

Laburbilduz,

$$\diamond p =_{\text{def}} \neg \square \neg p$$

$$\square p =_{\text{def}} \neg \diamond \neg p$$

5.- Zeintzuk dira “beharrezkoa izan” modalitate aletikoarekiko bereizten diren irakurketa ezberdinak? Adibideak ipin itzazu.

Modalitate aletikoaren barnean modalitate nomikoa, metafisikoa eta kontzeptuala bereizten ditugu. Horietako bakoitzean, “beharrezkoa izan” modalitate aletikoak irakurketa ezberdinak ditu.

Modalitate aletiko nomikoan, p beharrezkoa da baldin eta bakarrik baldin p-k lege naturalen elementuei jarraitzen badie. Adibidez, “likido batek 100°C-tan irakiten badu uraren irakite puntu berbera du” proposizioa beharrezkoa da.

Modalitate aletiko metafisikoan p beharrezkoa da baldin eta bakarrik baldin p-k lege naturalen elementuei jarraitzen badie. Hau gertatzen da, esate baterako objektu baten propietate esentzialen inguruko proposizioekin. Adibidez, “Socrates gizakia bada Socrates hilkorra da” proposizioa beharrezkoa da modalitate aletiko metafisikoan.

Modalitate aletiko kontzeptualean p beharrezkoa da baldin eta bakarrik baldin p-k egia kontzeptualen bildumako elementuei jarraitzen badie. Egia kontzeptualak biltzen dituzten proposizioak egiazkoak izango dira hoietan agertzen diren kontzeptuen arabera. Adibidez, “kontratututa egoteak” “langabezian ez egotea” esan nahi badu, “Ane tabernan kontratatu badute Ane ez dago langabezian” proposizioa beharrezkoa izango da modalitate aletiko kontzeptualean.

6.- Zeintzuk dira modalitate epistemiko eta doxatiko nagusiak eta nola bereizten dira?

Modalitate epistemikoan sujetu batek dakienarekin bateragarriak edo dakien horretatik jarraitzen diren proposizioak dira kontuan hartzen direnak.. Modalitate doxatikoan, aldiz, sujetu batek uste duenarekin bateragarriak edo uste horietatik jarraitzen diren proposizioak hartzen dira kontuan.

Esate baterako, p epistemikoki posible da S -rentzat baldin eta bakarrik baldin S -k dakienarekin bateragarria bada. Esate baterako, nik baldin badakit Hizkuntzaren Filosofia II ikasgaia Astarate eta Ostegunetan izaten dela, epistemikoki posible da Hizkuntzaren Filosofia IIko irakaslea egun horietan klasean egotea. Aldiz, p epistemikoki posible da S -rentzat ez bere jakintzaren arabera, baizik eta bere usteen arabera. Adibidez, nik uste badut Gorka gaixorik dagoela, posible da Gorka gaur etxean gelditu izana.

Hau da, modalitate epistemikoa eta doxatikoa uste eta jakintzaren arabera bereizten dira. Esan beharra dago ere, nik "sujetu" izendatu dudan hori sujetu indibiduala edo komintarioa izan daitekeela.

7.- *Metafisikoki posible den guztia epistemikoki posible al da? Zergatik? eta alderantzizkorik betetzen al da?*

Modalitate epistemikoak sujetu baten ezagutza edo usteen multzoaren arabekoak dira. Aldiz, modalitate metafisikoak ez dira sujetu baten ezagutzarekiko erlatiboak, egia metafisikoen bildumako elementuen arabekoak dira, sujetu baten edo sujetu multzo baten ezagutza eta usteekiko independentea. Esate baterako, modalitate epistemikoaren arabera, duela urte asko babiloniarrek uste zuten "goizeko izarra" eta "arratseko izarra" zeruan ikusten ziztuzten gorputz ezberdinak zirela. Aldiz, bi izen horiek artizarrari egiten diote erreferentzia, hots gorputz bakar batetaz ari gara. Hortaz, "goizeko izarra eta arratseko izarra gorputz ezberdinak dira" epistemikoki posible zen babiloniar haientzat. Aldiz, metafisikoki ezinezkoa da a eta b gorputz ezberdinak eta aldi berean gorputz berberak izatea. Adibide honekin ikusten dugu, beraz, epistemikoki posible den guztia ez dela metafisikoki posible. Gainera, metafisikoki posible den guztia ere ez da epistemikoki posible.

8.- Zein da *usteen eta ezagutzaren artean ematen den ezberdintasun nagusia? Nola eragiten du ezberdintun horrek semantikoki, hau da, dagozkien ereduaren egiturari? Eta sintatikoki, hau da, axiomatikoki?*

Ezagutza faktikoa da, hau da egia inplikatzeko du. Hortaz, S -k p ezagutzen badu, p egiazkoa izango da. Hau da, p epistemikoki beharrezkoa bada S -rentzat, orduan p egiazkoa izango da ($\Box p \rightarrow p$). P faltsua bada, orduan ezin da epistemikoki beharrezkotzat jo. Aldiz, usteek ez dute egia inplikatzeko, hots, faltsuak izan daitezke. Uste faltsu guztiek, $\Box p \rightarrow p$ printzipioa faltsatzen dute. Hortaz, sintatikoki, hau da axiomatikoki, ezagutzaz hitz egiten dugunean T axioma ($\Box p \rightarrow p$) betetzen dela esaten dugu, usteen kasuan ez bezala. Semantikoki, erreflexibotasunean eragiten du uste eta ezagutzaren arteko bereizketan. Ezagutzaren erreflexibitatea betetzen da, $\models Kip \rightarrow p$ betetzen baita, hau da, i sujetu batek p baldin badaki orduan p egiazkoa izango da, p ez bada egiazkoa orduan i sujetua oker zegoela edo p ez zekiela esango dugu. Esate baterako, nik ezin dut esan "badakit gaur Gorka klasera etorri dela baina ez da etorri". Aldiz, usteen kasuan ez da $\models Bip \rightarrow p$ betetzen, i sujetuak p betetzen delako ustea izatea bateragarria baita p ez betetzearekin, izan ere, ez dugu inongo arazorik i -k uste faltsu bat zuela esateko. Esate baterako, guztiz zentzuzkoa da esatea "uste nuen Gorka gaur klasera etorri zela baina ez da etorri".

9.- Defini itzazu ohikoak ez diren modalitate aletiko berriak. Adibideak eman.

Modalitate aletiko nomiko, metafisiko eta kontzeptualez gain, ohikoak ez diren modalitate berrietaz hitz egin dezakegu, zeinak batzuetan gure mundua ulertzeko aproposagoak suertatzen diren. Esate baterako, modalitate sozio-historikoa, matematikoa, teknologikoa, biologikoa, psikologikoa, tenporala eta politikoa ditugu.

Adibide gisa, modalitate sozio-historikoa aurkeztuko dut non zerbait beharrezkoa edo posiblea izango den gure ezagutza sozio-historikoaren arabera.

“Euskal Herrian ez zen posible euskaraz hitz egitea”. Proposizio hau egiazkoa da posibilitate sozio-historikoaren arabera, guk jakin badakigulako garai batean Euskal Herrian euskara debekaturik zegoela. Alabaina, badirudi modalitate nomiko, metafisiko edo kontzeptualaren arabera, proposizioa faltsatu egin daitekela.

Beste adibide bat aurkezteko modalitate matematikoa aurkeztuko dut. Matematikoki” posible da 1cm neurtzen duten katetoak dituen triangeluaren hipotenusa ezagutzea pitagorasen legearen arabera. Aldiz, $\sqrt{2}$ zenbaki irrazionala dela dakigunez, nomikoki esango genuke ez dela posible neurri hori ezagutzea.

10.- Zer dira eta nola definitzen dira modalitate deontikoak? Sistema deontiko estandarretan T axioma eskema betetzen al da? Zergatik? Nola bermatzen da konsistentzia D sisteman?

Modalitate deontikoak baimen, eginbehar eta debekuaren nozioekin definitzen dira. Modalitate deontikoen barruan modalitate morala eta legala bereiz daitezke, besteak beste. Bataren arabera, p posible izango da baldin eta bakarrik baldin p lege moralarekin bateragarria bada eta p beharrezkoa izango da baldin eta bakarrik baldin p lege moraletik jarraitzen bada. Bestearen arabera, p posible izango da baldin eta bakarrik baldin p lege juridikoekin bateragarria bada eta p beharrezkoa izango da lege juridikoetatik jarraitzen bada.

T axioma eskemak dio zerbait beharrezkoa bada hau egiazkoa izango dela ($\Box p \rightarrow p$). Modalitate deontikoetan hau ez da betetzen, izan ere, lege moral eta juridikoak hautsi egin daitezke. Esate baterako, sistema juridiko espaniarraren arabera debekatuta dago (ezin da) tortura praktikatu. Hortaz, “norbaitek plazer hutsagatik haurak tortura ditzazke” proposizioa begiratzen dugunean, hau faltsutzat joko dugu. Alabaina, tortura kasuak eman izan dira, ezin legeak “bete behar” badira ere, beti betetzen ez direlako.

D sisteman, T axiomaren bariante bat dugu, obligazioaren eragile modalaren bidez formulatzen dena: $\Box p \rightarrow \Box \Box p$. Formula hau, definizioz, ukapenaren bidez adierazi dezakegu: $\Box p \rightarrow \Box \Box p$; $\neg(\Box p \wedge \Box \neg p)$. Azken formula hau semantikoki tautologia bat bezala hartzen da ($\models \neg(\Box p \wedge \Box \neg p)$), eta adierzaten da beti izango dela egia faltsua dela aldi berean obligazioa izatea zerbait egitea eta obligazioa izatea zerbait hori ez egitea. Bide honetatik, konsistentzia bermatzen da sistema deontikoan, kontraesana sahiesten baita.

11.- Nola egiten da modalitateen *de dicto* eta *de re* irakurketen bereizketa? Adibideak ipini.


De dicto modalitateak enuntziatu bat egiazkoa izan daiteken modu ezberdinak biltzen ditu, aldiz de re modalitateak objektu batek propietate bat izateko modu ezberdinak biltzen ditu. Hori horrela da, hain zuzen ere de dicto modalitateak kontzeptuetan duelako jatorria, de re modalitateak gauzetan duen bitartean.

“Beharrezkoa da, Jone kontrataturik badago , orduan Jone langabezian ez egotea” proposizioa honela formalizatuko genuke : $\Box (Kj \rightarrow \neg Lj)$. Kasu honetan, beharrezkotasuna enuntziatu bati aplikatzen diogu, “Jone kontrataturik badago, orduan Jone ez dago langabezian” enuntziatuari. Enuntziatu hori egiazkoa da, hain zuzen ere “kontratatu” eta “langabezi” kontzeptuengatik, ez bereziki Jone kontrataturik edo langabezian egoteagatik.

Aldiz, “Kone kontrataturik badago, orduan beharrezkoa da Jone langabezian ez egotea” proposizioa honela formalizatuko genuke: $Kj \rightarrow \Box \neg Lj$. Kasu honetan, beharrezkotasuna propietate bati dagokio, hau da, kasu honetan Jonek kontrataturik egoteko propietatea badu, beharrezkoa du langabezian ez egotearen propietatea. Modalitatea Jone kontratatu egotearen edo ez egotearen baitakoa da, Jone “gauza” gisa ulertuta”, “gauza horren” propietateen arabera.

12.- Zeintzuk dira modalitate ezberdinen artean ematen diren erlazio logikoak? Adibidez: logikoki posible den guztia metafisikoki posiblea al da? Zergatik? Eta alderantziz? Zergatik?

Grafiko honek bidez ikus daitezke modalitate ezberdinen artean ematen diren erlazioak.



Metafisikoki posible den oro logikoki posible da, baina logikoki posible den oro ez da metafisikoki posible. Modelo estandararekin bat eginez (Roca, 2016, 172. or), posibilitate nomikoak metafisikoa inplikatzeko du, metafisikoki kontzeptuala eta kontzeptuala logikoki eta alderantzizko inplikazioa ez da sekula ematen.

13.- Nola definitzen dira gauza baten *ezaugarri esentzialak*? Aipa itzazu propietate esentzialen definizio egoki bat emateko topa ditzazkegun oztopoak?

Ezaugarri esentzialak bi modutan defini daitezke:

- Ezaugarritze Existenzial modala (EEM): p a-ren ezaugarri esentzial bat da baldin eta bakarrik baldin a ezin bada existitu p izan gabe.
- Ezaugarritze definizionala (ED): p a-ren ezaugarri esentzial bat da baldin eta bakarrik baldin “Zer da a ?” galderaren erantzuna emateko p ezinbestekoa bada.

Definizio bide hauek, ordea, arazoak dituzte. (EEM)ren kasuan, definizio honek batetik *existentziaren* propietatea eta, bestetik, *bildumako kide bakarra izatearen* propietatea, biak esentzialak direla inplikutzen du eta baieztapen horiek problematikoak dira.

Bildumako kide bakarra izatea propietate esentzial gisa hartzeak esan nahi du, esate baterako 2 zenbakiarentzat esentziala dela $\{2\}$ taldekoa izatea, izan ere, $\{2\}$ taldea osatzen duen kide bakarra 2 zenbakia da. Alabaina, $\{2\}$ taldeko kide bakarra izatea ez da esentziala 2 zenbakirako. Batzuen ustez, kritika honen aurrean ED definizioak irabazi egiten du, malguagoa delako. Alabaina, bigarren honek ere, existentzia propietate esentzial gisa ulertzea garamatza, izan ere, EEM-k bezala, honek ere onartzen du ezaugarri esentzialek entitateen existentziarako baldintza beharrezkoak eskaintzen dituztela. “*Necesitismotik*”, ordea, baieztapen horren arazoak ikus ditzazkegu objektu kontrektu eta abstraktoen gaira jotzean. Batetik, pentsatzen da objektu baten existentziarako baldintza bakarra hauek posible izatea da. Gainera, posibilitatea baldintza nahikoa dela ikus dezakegu entitateen existentziarako. Adibidez, “Sokrates” entitate gisa uler dezakegu, eta hortaz “Sokrates ezin zitekeen existitu” faltsua da, egia izango litzatekeen bakarra da “Sokrates ez-konkretua izan zitekeen” da, Sokratesek entitate abstraktu gisa posible izaten jarraitu dezake eta. Afera da ea objektu konkretuetan existentziak propietate esentzial izaten jarraitzen duen. Gainera, nezesitisten ustez, esan bezala entitate oso posible da existitu edo ez, baina honek arazo batzuk planteatzera garamatza:

14.- Aipatu itzazu *jatorriaren esentzialisismoaz* gain bereizten diren beste esentzialisismoak. Adibideak eskaini.

Jatorriaren esentzialisismoaz gain, tipoaren esentzialisismoaz ere hitz egin dezakegu. Tipoaren esentzialisismoaren araberam x K tipokoa bada, orduan esentziala da x -rentzat K tipokoa izatea. Esentzialisismo honen arabera, esaterako, Sokratentzat esentziala da gizakia izatea hau da metafisikoki beharrezkoa da Sokrates existitzen bada, hau gizakia izatea. Metafisikoki posible den mundu orotan, Sokrates existitzen bada, Sokrates gizakia izango da.

15.- Zein dira *modalitate metafisikoa eta nomikoen artean ematen den ezberdintasun nagusia? Adibideak jarri itzazu.*

Modalitate nomikoa lege naturalek osaturiko egia bilduma batetik definitzen da eta modalitate metafisikoa, aldiz, lege metafisikoez osaturiko egia bilduma batetik. Lege nomikoak, naturako legeak, orokortzeen bidez osatzen dira, baina ezin da esan lege metafisikoak ere orokortze hutsak direnik. Lege metafisiko orokor batzuk jatorriaren esentzialismoa, zeinaren arabera objektu baten jatorria bere propietate esentzial bat den; eta tipoaren esentzialismoa, zeinaren arabera objektu baten tipo edo mota bere propietate esentziala den, ditugu. Proposizio partikular batzuk ere, lege metafisiko gisa kontsideratu behar dira, hori egin ezean arazo batzuekin topo egin dezakegulako. Adibidez, guk badakigu Sokrates gizakia dela. Tipoaren esentzialismoaren arabera, Sokrates esentzialki gizakia da eta beraz, existitzen den mundu orotan gizakia izango da. Alabaina, “Sokrates zakur bat da” ere bateragarria da tipoaren esentzialismo, jatorriaren esentzialismo edo beste edizein orokortzerekin. Izan ere, lege metafisikoak soilik jatorriaren esentzialismo eta tipoaren esentzialismoa bezalako orokortzeak biltzen baditu, posibilitate metafisikoaren arabera “Sokrates zakurra da” metafisikoki posibletzat jo beharko genuke. Alabaina, guk badakigu Sokrates esentzialki gizakia dela. Izan ere, modalitate metafisikoan posibilitateak propietate esentzialek murrizten dituzte. Hori argitzeko, lege orokorrez gain, lege metafisikoan lege eta proposizio partikularrak ere kontsideratu behar ditugu. Gure adibidera itzuliz, posibilitatea arautuko duen lege partikular hori izango da “Sokrates (existitzen bada) gizakia da”.

16.- Juridikoki posible den guztia moralki posible al da? Zergatik? Alderantzikoa betetzen al da? Zergatik?

Ez, juridikoki posible den guztia ez da moralki posible eta, alderantziz, moralki posible den guztia ere ez da juridikoki posible. Hau gertatzen da, batetik, gure mundua ez delako juridikoki perfektua eta, bestetik, moralki perfektua ere ez delako. Horregatik, sistema juridikoa injustua dela esan ohi da sarritan. Esate baterako, lege injustu baten haurrean gaudenean, juridikoki posible den zerbait moralki posiblea ez dela diogu. Adibidez, azken hilabeteetan Kataluniako auziari loturik, esan genezake “juridikoki posible da 155. artikulua aplikazioa” baina ikusuntu moral batetik hori salatzeke “moralki ez da posible 155. artikulua aplikazioa”. Beste batzuetan, moralki posibleak diren gauza asko juridikoki posibleak ez direla gertatzen da, sistema juridikoa hori ahalbidetzeko legerik ematen ez digunean. Esate baterako, emakumeek bere gorputzaren gain erabakitze eskubiudea dutela diogunean, esan genezake ikusuntu moral batetik posible izan beharko lukeela abortuak. Alabaina, sistema juridiko askotan abortoa penalizaturik dago, hots ez da posible.

17.- Zer dira banako esentziak?

Banako esentziak aldi berean beharrezkoak eta nahikoak diren ezaugarriak dira.

INTENTZIONALITATEA/INTENTSIONALITATEA:

4. ariketa orria

1.- Nola definitzen du “intenzionalitatea” Brentanok?

Brentanok intenzionalitatea “eduki bati erreferentzia” , “objektu bateranzko norabidea” edo “objektibitate emanente” gisa definitzen du.

2.- Zein da Brentanok intenzionalitatea irizpide gisa erabiliz egin nahi duen bereizketa?

Brentanok “intenzionalitate” terminoaren inguruko konfusio bat argitu nahi zuen. Terminoaren zentzu arrunta eta zentzu filosofikoa bereizi nahi zituen. “Intentionalität” termino alemanaren bidez, zentzu filosofikoa bildu zuen eta hau alebaneraz “absicht” denominatzen den zentzu arruntetik bereizi. Intenzionalitatea, zentzu arruntean, borondate, asmo edo predisposizioarekin lotzen da. Aldiz, terminoaren zentzu filosofikoa bese ideia batzuekin lotzen da, aurreko galderan azaldu bezala.

3.- Zeintzuk dira intenzionalitatea eta intentsionalitatearen artean ematen diren erlazioak.

Intenzionalitate eta intentsionalitatearen kriterioak berberak direla dirudi hasiera batean: estentsioak ez du egia balioan eraginik, konposagarritasun legea ez da betetzen eta ordezkapen legea ez da betetzen (Chisholmen kriterioak, 35. or). Intentsionalitate eta intenzionalitatea elkarrekin erlazonaturik daude beraz, izan ere, intenzionalitatearen kriterio horiek asetzen dituen edozein proposizio intentsionalki adierazten da.

Körnerren hitzak gogora ekarriz, eduki mentalei erreferentzia eginez erabiltzen du intenzionalitatearen kontzeptua eta esaten du eduki mental horiek adierazteko erabiltzen diren proposizioak intentsionalak direla. Hau da, intenzionalitatea eduki mentalen propietate bat dela dio, intenzionalitatea proposizioen propietate bat den bitartean.

Searlek ere, intenzionalitatea gogoarekin lotzen du, baina baieztatzen du intenzionalitatea gogoak beragandik kanpoko gauzak errepresentatzeko duen gaitasuna dela; intentsionalitatea enuntziatu batzuk extentsionalitatearen kriterio batzuk asetzeko duen ezintasuna den bitartean. Bigarren honen arabera, bien arteko erlazio bakarra zera da: intenzionalitatearen inguruko zenbait enuntzioatu intentsionalak direla. Izan ere, egoera intentsionalak errepresentazioak dira, eta haiek deskribatzen dituzten proposizioak errepresentazioaren errepresentazioak. Honek esan nahi du, haien egia balioa errepresentazioaren baldintzen arabera izango dela eta ez errepresentatua den objektuarena. Hortaz, egia balioa ez dago estentsioari (erreferentziari) loturik eta, beraz, intentsionalak direla esango dugu.

4.- Zeintzuk dira semantika batek estentsionala izateko bete behar dituen baldintzak? Semantika estentsionalen adibideak ipini itzazue.

Semantika estentsionala izateak, ordezkapen printzipioa betetzea eskatzen du. Hau da, posible izan behar du bertako enuntziatuen egia balioa mantentzea, enuntziatu bat extentsio bera duen beste batengatik aldatzean. Adibidez, $4 + 4 = 8$ eta $\sqrt{16} + \sqrt{16} = 8$

5.- Zeintzuk dira semantika batek intentsionala izateko bete behar dituen baldintzak? Semantika intentsionalen adibideak ipini.

Semantika intentsionala izateak, ordezkapen printzipioa ez betetzea eskatzen du. Hau da, posible izan behar du enuntziatu bat extentsio bera duen beste batengatik aldatu eta honen egiabalioa aldatzea.

Esate baterako, kontuan hartu bi proposizio hauek:

- (i) "Anek *Handia* filma ikusi nahi du"
- (ii) "Anek ez du *Handia* filma ikusteko asmorik"

"*Handia* filma" "Donostiako zinemaldian saria jaso duen filma" espresioagatik ordezkatzeko bagenu, enuntziatuen egiabalioa alda liteke, izan ere, posible da Anek *Handia* filma ikusi nahi izatea, eta ez izatea Donostiako zinemaldian saria jaso duen film bat ikusteko nahia.

6.- Euskararen semantika intentsionala al da? Zergatik?

Bai, Euskararen semantika, hizkuntza natural guztiena bezala, intentsionala da dituen bi aspektuengatik: bere modalitatea eta bere intentzionalitatea.

Modalitateari dagokionez, badakigu (i) "beharrezkoa da 9 zazpi baino handiagoa izatea" egiazkoa dela eta kontuan izan "9" adierazpenak eta "eguzki sistemako planeta kopurua" adierazpenak estentsio bera dutela. Semantika estentsional batean egongo bagina, "9" eta "eguzki sistemako planeta kopurua" elkarrengandik ordezkatzeko aukera izan beharko genuke eta sortzen den enuntziatu honen (ii) "Beharrezkoa da eguzki sistemako planeten kopurua zazpi baino handiagoa izatea" egiazkoa izan beharko luke. Alabaina, enuntu hori faltsua da, eta beraz, euskararen semantika bere modalitatearen ondorioz intentsionala dela esan beharko dugu. Gainera, euskararen bidez eduki intentzionalak dituzten proposizioak adierazi hoi ditugu eta kasu horiek ere ordezkapen printzipioa asetzen ez dutela ikusi dugu aurreko galderako adibidean.

Hala ere, badira intentzionalak diren egoera batzuk, esate baterako "ikusi" aditzarekin lotzen direnak, zeinak ez diren intentsionalki adierazten.

7.- Logika modal aletikoaren semantika intentsonala al da? Zergatik?

Semantika intentsional batean murgiltzeko aski da hizkuntza formal bati *beharrezkotasuna* eta *posibilitatea* kontzeptuak sartzea. Logika modal aletikoan, horixe gertatzen da, proposizioak posible edo beharrezko izango dira egia bilduma baten arabera.

Adibidez, imaginatu egia aritmetiko bat dugula " $p \rightarrow \square p$ " eta erreferentzia bera (hots, egiabalia bera) duen " q " egia kontingente bat. Posible izan beharko luke ordezkapen printzipioa jarraitu eta $\square q$ ondorioztatzea, baina ondorio hori faltsua da, hau da ez da ordezkapen printzipioa betetzen.

8.-Zer dira testuinguru intentsionalak? Testuinguru intentsionalen adibideak ipini itzazu.

Testuinguru intentsionalak ordezkagarritasun printzipioa betetzen ez duten enuntziatuengatik ezaugarritzen dira. Enuntziatu hauetan, enuntziatua osatzen duen deskribapen edo izen bat erreferentzia bera duen beste batengatik ordezkatzuz gero, enuntziatu honen egiabalia aldatu egiten da. Esate baterako, norbaiti usteak egokitzen dizkiogunean testuinguru intentsionalak sortu ohi ditugu. Adibidez, "nire anai txikiak uste du opariak utzi dizkion pertsona Olentzero dela" egiazkoa izan daiteke, baina "opariak utzi dizkion pertsona" erreferentzia bera duen "aita" adierazpenarengatik ordezkatzuz gero sortzen dugun enuntziatu hau "nire anai txikiak uste du aita Olentzero dela" faltsua da, nire anai txikiak ez baitu hori uste. "Beharrezkotasuna" eta "posibilitatea" gisako eragile modalak jokoan sartzen ditugunean ere, testuinguru intentsionalak sortzen ditugu. Adibidez, "beharrezkoa da 9 7 baino handiagoa izatea" egiazkoa da eta baita "Eguzki sistemako planeten kopurua 9 da". Aldiz, "9" "eguzki sistemako planeta kopurua"- gatik ordezkatzuz gero (non bien erreferentzia 9 zenbakia den) sortzen dugun enuntziatu hau "beharrezkoa da eguzki sistemako planeten kopurua 7 baino handiagoa izatea" faltsua da.

9.- Zeintzuk dira Chisholmek hizkuntzaren erabilera intentzionala bereizteko proposatu zituen irizpideak?

Hiru dira Chisholmek proposaturiko irizpideak:

1. Ez dira estentsiboak. Hau da, enuntziatuaren egia balioa ez dago loturik enuntziatua osatzen duen izen edo deskripzio batek erreferitzen duen objektuaren existentziarekin.
2. Ez da konposagarritasun legea betetzen. Hau da, enuntziatu konposatu baten egia balioa independientea da hau konposatzen duten enuntziatuen egia balioarekiko.
3. Ez da ordezkagarritasun legea betetzen. Hau da, enuntziatu baten egia balioa aldatu daiteke honengan agertzen den deskribapen edo izen bat erreferentzia bereko beste batengatik aldatzean.

10.- Intentzionalitatea mentala dena bereizteko irizpide egokia al da? Zergatik?

Ez, izan ere, Rortyk dioen moduan, badira intentzionalak ez diren gogo egoera batzuk, esate baterako, mina.

11.-Hizkuntza mailan izaera intentsionala izateak fenomeno intentzionalak bereizteko irizpide egokia al da?

Ez, fenomeno intentzionalak egon daitezke eta hizkuntza mailan intenstionalak ez direnak. Esate baterako, "aditz arrakastatsuen" (ikus, frogatu...) kasuan, hauek intentzionalak dira, baina beren objektu intentzionala existitzea derrigorrezkoa da hauek agertzen diren

enuntziatuak egiazkoak izateko. “Amaiak txakur bat ikusi du” egiazkoa izateko, txakur hori existitu egin behar da; existitu ezean, enuntziatu hori fatusatzat joko dugu. Hau da, enuntziatuaren egia balioa baldintzaturik dago erreferentzia egiten zaien objektuen existentziagati. Hortaz, mota honetako aditzen kasuan ezin dugu intentsionalitateaz hitz egin, nahiz eta intentzionalak diren.

12.-“Intentzioa” asmo gisa ulertuta intentzionala al da Brentanoren zentzuan? Zergatik?

Ez. “Intentzioa” asmo gisa ulertzen dugunean, adibidez “ikasteko intentzioa”, “paseatzeko intentzioa” etb. ekintza berari egiten diote erreferentzia. Brentanoren definizioak “eduki bati erreferentzia”, “objektu batekiko noranbidea”, “objektibitate imanentea” gisako nozioak ditu, non errepresentatzen den objektu bat iradokitzen duen, zeina existitu daiteken edo ez. Aldiz, “intentzioa” asmo gisa ulertzen denean, ezin dugu gisa honetako objektu batetaz hitz egin, erreferitzen den bakarra ekintza bera baita. Ez da inon ez existitu ez errerepresentatzen, esate baterako “ikastea”.

13.- Norbaiti gertaera edo egoera baten ezagutza egokitzen diogunean hizkuntza erabiliz testuinguru intentsionala sortzen al dugu? Zergatik?

Bai, izan ere, errepresentazio baten errepresentazioaz hitz egiten baitugu kasu horietan. Esate baterako, nik nire lehengusu txikiari “ $2+2=4$ ”- delako ezagutza egoki diezaioket: “Nire lehengusu txikiak badaki $2+2=4$ dela”. Kasu honetan, nire lehengusuaren ustea errepresentazio bati buruzkoa izango da, eta ni errepresentazio horren errepresentazioa adierazten ari naiz. Kasu horretan testuinguru intentsional bat sortzen dugu, izan ere, enuntziatu horren egia balioa aldatu egin daiteke hau osatzen duen deskripzio edo izen bat erreferentzia bera duen beste batengatik aldatzean. Esate baterako, “4” eta “ $\sqrt{16}$ ” erreferentzia bera dute, 4 zenbakia. Alabaina, “nire lehengusu txikiak badaki $2+2=4$ dela” egiazkoa izan daiteke eta “nire lehengusu txikiak badaki $2+2=\sqrt{16}$ dela” faltsua.

14.- Zein da “ikusi” aditzaren irakurketa epistemikoa? Adibideak ipini.

Seareleren irakurketa epistemikoaren arabera, “ikusi” aditza jakintzarekin loturik dago. Intentzionalak diren eta intentsionalki adierazten ez diren egoerak dira, beti objektu intentsional existenteak dituztenak.

Adibidez, (i) “Gorkak urtxintxa bat ikusten du”.

Urtxintxa beharrean kattagorria ipiniko bagenu, hots, erreferentzia bereko beste espresio batengatik ordezkaturiko bagenu, (ii) “Gorkak kattagorri bat ikusten du” esaldi osoaren egiabalioa mantenduko litzateke. (i) egiazkoa bada (ii) ere bai.

15.- Intentzionalak ez diren adierazpen intentsionalen adibideak ipini.

“Beharrezkoa da 9 7 baino handiagoa izatea”

“Filosofia graduko 3. mailako euskarazko taldeko ikasle kopurua 9 ikaslekoa da”

“Beharrezkoa filosofia graduko 3. mailako euskarazko taldeko ikasle kopurua 7 baino handiagoa izatea”

DENBORAZKO LOGIKA

5. ariketa orria.

1.- “p” formula “Miren abesten ari da” formalizatzeko erabiltzen badugu, nola itzuli perpausarne bidez ondoko formula hauek?

- **p**: Miren abesten ari da.
- **Fp**: Mirenek abestuko du.
- **Pp**: Mirenek abestu zuen.
- **PPp**: iraganean gertatu zen behin iraganean (lehenago) Mirenek abestu izana egiazkoa izatea.
- **FPp**: Etorkizunean gertatuko da behin iraganean Mirenek abestu izana egiazkoa izatea.
- **PFPp**: iraganean egia izian zen etorkizun batean gertatuko zela lehenago iraganean Mirenek abestu izana egiazkoa izatea.


Izan bedi ondoko eredua:

$T = \{t1, t2, t3, t4, t5, t6\}$

$R = \{ \langle t1, t2 \rangle, \langle t2, t3 \rangle, \langle t3, t6 \rangle, \langle t1, t4 \rangle, \langle t4, t5 \rangle, \langle t5, t6 \rangle \} \cap$

$Et1(p) = Et2(p) = Et3(p) = Et6(p) = 1 ; Et4(p) = Et5(p) = 0$

2.- Marraztu dagokion diagrama



3.- Erabaki ondoko formula hauek eredu honetan baliozkoak diren ala ez.

3.1 $\neg p \rightarrow FGp$:

$\neg p$: t4 edo t5

Fp: gertatuko da p

FGp: etorkizunean gertatuko da beti egiazkoa dela p

Ez da baliozkoa. $R = \langle t4, t5 \rangle$ dugu, eta t4-en ezin dugu esan etorkizunean (t5-en) p beti beteko denik, $Et5(p)=0$ baita.

3.2 $F\neg p \rightarrow FF\neg p$

$F\neg p$: etorkizunean $\neg p$ gertatuko da

$FF\neg p$: etorkizunean gertatuko da etorkizunean $\neg p$ gertatuko dela.

$F\neg p$ baliozkoa izango da t1 eta t4en. Izan ere, $R = \langle t1, t4 \rangle$ eta $R = \langle t4, t5 \rangle$ dugu eta $Et4(p)=Et5(p)=0$. Aldiz, 14en gaudenean, nahiz eta $F\neg p$ egiazkoa izan, ($R = \langle t4, t5 \rangle$ eta $Et5(p)=0$ baita) $FF\neg p$ ez da betetzen, izan erem $R = \langle t5, t6 \rangle$ dugu eta $Et6(p)=1$ da. Kasu horretan, baldintzatzailearen *aurrekaria egiazkoa izatea eta atzekaria faltsua izatea gertatzen da eta formula hortaz ez da baliozkoa.

* $p \rightarrow q$

1 0 0

3.3 $G(p \neg p \rightarrow \neg p)$

Ez da baliozkoa. Formulak dio beti gertatuko dela iraganean lehenago $\neg p$ gertatu bada, denbora aldi horretan $\neg p$ egiazkoa izatea. $R = \langle t5, t6 \rangle$ dugu, non t6-n gaudenean egiazkoa bada ere $P\neg p$, $Et5(p) = 0$ baita; $\neg p$ ez da betetzen, izan ere $Et6(p) = 1$

3.4. $(p \wedge Gp) \rightarrow Hp$

Formula honen arabera; une batean p gertatzen bada eta etorkizunean beti gertatuko bada, orduan iraganean p beti izango da egiazkoa.

Aurrekaria, $(p \wedge Gp)$ egiazkoa izateko kasuak dira t2 eta t3 dira.

·t2, $R = \langle t1, t2 \rangle$ eta $Et2(p)=Et1(p)=1$ delako

·t3, $R = \langle t2, t3 \rangle$ eta $Et3(p) = Et2(p)=1$ delako

Formula baliozkoa izan dadin, Hp ere bete beharko da. Eta bi kasu horietan, t2 eta t3-n, betetzen da.

·t2: $R = \langle t2, t3 \rangle$ eta $Et3(p)=1$

·t3: $R = \langle t3, t6 \rangle$ eta $Et6(p)=1$

Kasu horietan, beraz formula baliozkoa da.

Aurrekaria $(p \wedge Gp)$ faltsua izateko kasuak t6, t5 eta t4 dira.

·t6: $R = \langle t5, t6 \rangle$ eta $Et5(p)=0$, $Et6(p)=1$

·t5: $R = \langle t4, t5 \rangle$ eta $Et4(p)=0$, $Et5(p)=0$

·t4: $R = \langle t1, t4 \rangle$ eta $Et1(p)=1$, $Et4(p)=0$

Bi kasu horietan ere baliozkoa da, izan ere aurrekaria daltsua denean, baldintzatzailea beti izango da egiazkoa. Hortaz, formula baliozkoa dela esan dezakegu kasuak aztertu ostean.

4.- Erabaki nola ezaugarritzen duten denbora ardatza ondoko formula hauek:


4.1. $G (X \wedge \neg X)$

Formula honen arabera beti gertatuko da X eta $\neg X$. Formula bi eratan uler daiteke: batetik, denborak amaiera bat duela esan dezake, bestetik etorkizunean posibilitate oro egiazkoa izan daitekela.

4.2. $H (X \wedge \neg X)$

Formula honen arabera beti izan da X eta $\neg X$. Honek denborak hasiera bat izan zuela esan nahi du.

4.3. $PPX \rightarrow PX$



$R=\langle t1,t2 \rangle$, $R=\langle t2,t3 \rangle$, $R=\langle t1,t3 \rangle$

Formula honek adierazten du iraganean lehenago X gertatu bazen, iraganean X gertatu zela. Denbora lineala dela adierazten du, hau da $t1$, $t2$, $t3$ hurrenez hurren gertatu zirela. Hortaz, $t1$ -en X gertatu bazen, $t2$ -n PX egiazkoa izango da eta $t3$ -n PPx egiazkoa. Hau da, PPx egiazkoa denean $t3$ -n gaude eta, hortaz, iraganean lehenago derrigorrez gertatu behar izan zen Px . Kasu horretan, $t2$ -n.

SEMANTIKA: DE DICTO/ DE RE MODALITATEAK (ETA 1)

6. ariketa orria.

1." De dicto" eta "de re" bereizketa aplikatuz, zeintzuk dira ondoko esaldi hauei egoki dizkiegun irakurketa ezberdinak?

1.1. "Orain dela bi urte AEBko presidentea beltza zen"

·De dicto:

$P \exists x [x = \text{AEBko presidentea} \wedge Bx]$

gisa ulertzen dugu esaldia eta egiazkoa dela ikusten dugu. Irakurketa honetan eragile modal baten pean agertzen diren aldagai guztiak lotzen dituzten zenbatzaileak eragile horren pean agertzen dira. Adierazten da duela bi urte bazela x bat eta x hori AEBko presidentea zela eta beltza zela. Kasu horretan, esaldia egiazkoa da, duela 2 urte Obama baitzen presidentea eta Obama beltza baita, bai orain eta bai orain dela 2 urte ere.

·De re:

$$\exists x [x = \text{AEBko presidentea} \wedge P (Bx)]$$

De re modalitatean, gutxienez eragile modalaren pean dagoen aldagai bat lotzen duen zenbatzaile bat eragiletik kanpo dago. Hortaz, esaldiak adierazten du badagoela gutxienez x bat zeina AEBko presidentea den eta x hori iraganean (duela bi urte) beltza zela. Irakurketa honetan esaldia faltsua da, AEBko presidentea Trump baita eta Trump duela bi urte ez baitzen beltza.

1.2 Epailleak Olentzero arriskutsua dela uste du eta Olentzero atxilotzeko agindua bidali dio ertzainari.

1.3 “Estatu Batuetako presidentea demokrata zen”

·De dicto:

$$P \exists x [x = \text{AEBko presidentea} \wedge Dx]$$

Irakurketa honen arabera, non eragile modal baten eraginpean dauden aldagai guztiak lotzen dituzten zenbatzaileak eragile horren pean agertzen diren, esaldia egiazkoa da. Izan ere, adierazten da iraganean bazela x bat, zeina AEBko presidentea zen eta demokrata zen eta egiazkoa da iraganeko AEBko presidenteren bat noizbait demokrata bat izana.

·De re:

$$\exists x [x = \text{AEBko presidentea} \wedge P (Dx)]$$

Irakurketa honen arabera, gutxienez eragile modalaren pean dagoen aldagaia lotzen duen zenbatzaile bat eragiletik kanpo dago. Hortaz, esaldiak esango liguke badela gutxienez x bat, zeina AEBko presidentea den eta iraganean demokrata izan zen. Esaldia faltsua da, izan ere Donald Trump iraganean demokrata zela adierazten du eta Trump partido errepublikarrekoa da.

1. 4. “Beharrezkoa da jokoaren irabazleak jokoa irabaztea”.

·De dicto:

$$\square \exists x [x = \text{jokoaren irabazlea} \wedge Ix]$$

Ix : x-k jokoa irabaztea.

Irakusketa honetan, non eragile modal baten pean agertzen diren aldagai guztiak lotzen dituen zenbatzailea eragile modal horren pean agertzen den, esaldiak adieraziko liguke beharrezkoa dela x bat egotea, zeina jokoaren irabazlea dena eta jokoa irabazi duena. Esaldia egiazkoa da.

·De re:

$$\exists x [x = \text{jokoaren irabazlea} \wedge \square (Ix)]$$

Irakurketa honetan, gutxienez eragile modalaren pean dagoen aldagaia lotzen duen zenbatzaile bat eragile modaletik kanpo agertzen da. Hortaz, adierazten da x bat badago eta hau

jokoaren irabazlea bada, x honek derrigorrez joko irabazi duela. Kasu honetan, esaldia faltsua izan daiteke, ez baita bejarrezkoa jokoaren irabazle bat egotea. Egotekotan, beharrezkoa da honek joko irabazi izana.

1.5 “Eserita dagoena zutik egon daiteke”

·De dicto:

$$\diamond \exists x [Ex \wedge Zx]$$

Irakurketa honen arabera, non eragile modal batenm pean agertzen diren aldagai guztiak lotzen dituen zenbatzailea eragile horren pean agertzen den, esaldia faltsua da. Adierazten du posible dela x bat egotea zeina eserita eta zutik dagoen eta hori ezinezkoa da.

·De re:

$$\exists x [Ex \wedge \diamond Zx]$$

Irakurketa honen arabera gutxienez eragile modalaren pean dagoen aldagai lotzen duen zenbatzaile bat eragiletik kanpo egongo da. Beraz, esaldiak adierazten du badela x bat eserita dagoena eta zutik egoteko posibilitatea duena. Kasu horretan egiazkoa da, eserita dagoen norbait (orokorrean) ez baitago derrigorrez eserita eta zutik egoteko aukera nahiz gaitasuna ditu.

1.6 “Azkeneko hauteskundeak ospatu baino lehen lehendakariak gezur bat esan zuen”

·De dicto:

$$PPq \exists x [x = \text{lehendakaria izan} \wedge Gx]$$

q: hauteskundeak gertatu

Gx: x-k gezur bat esan

Irakurketa honen arabera eragile modal baten pean agertzen diren aldagai guztiak lotzen dituen zenbatzailea ere eragile modal horren pean agertzen da. Hortaz, esaldiak adieraziko liguke azken hauteskundeak baino lehen bazela x bat zeina lehendakaria zen eta zeinak gezur bat esan zuen. Hau da, une horretako lehendakariak, hauteskundeak gertatu baina lehenagokoak, esan zuen gezurra. 2016an izan ziren azken hauteskundeak, une horretan Urkullu zen lehendakaria eta, beraz, berak gezur bat esan zuela esan nahi du. Nik uste dut, egiazkoa izan daitekela.

·De re:

$$\exists x [x = \text{lehendakaria izan} \wedge PPq (Gx)]$$

Irakurketa honen arabera, non gutxienez eragile modalaren pean dagoen aldagaia lotzen duen zenbatzaile bat eragiletik kanpo dagoen, esaldiak adierazten du badagoela x bat zeina orain lehendakaria den eta x horrek azken hauteskundeak gertatu baino lehen gezur bat esan zuen. Gerta liteke, une horretako lehendakaria ez izatea oraingo bera, baina gure kasuan bada. Esaldiak, beraz, egungo lehendakari Urkulluk azken hauteskundeak gertatu baino lehenago gezur bat esan zuela adierazten du eta hori ere egiazkoa izan daitekela iruditzen zait.

1.7 Etorkizunean norbaitek aurki dezake lhesaren aurkako txertoa.

·De dicto:

$$F \Diamond \exists x (Tx)$$

Tx : x-k txertoa aurkitzea.

Irakurketa honen arabera eragile modal baten pean agertzen diren aldagai guztiak lotzen dituen zenbatzailea ere eragile horren pean agertzen da. Kasu honetan, esaldiak adieraziko liguke etorkizunean posible dela x bat egotea zeinak Hiesaren aurkako txertoa aurkituko duen. Hau da, posible dela Hiesaren aurkitzailea den norbait egotea etorkizunean. Etorkizuneko pertsonen posibilitateaz ari gara.

·De re:

$$\exists x [\Diamond F(Tx)]$$

Irakurketa honen arabera, gutxienez eragile modalaren pean dagoen aldagaia lotzen duen zenbatzaile bat eragiletik kanpo agertzen da. Honena arabera, esaldiak adieraziko liguke existitzen dela norbait zeinak Hiesaren aurkako txertoa asmatzeko posibilitatea duena etorkizunean. Hau da, orainaldiko pertsona batez eta honen etorkizuneko posibilitateaz ari gara.

2.Asma (bila) itzazu de dicto/ de re irakurketa bikoitza onartzen duten 10 esaldi.

1. "Iraganean frantziako erregea burusoila zen"
 - 1.1. De dicto: $\Box \exists x (x = \text{Frantziako erregea} \wedge Bx)$ (egiazkoa)
 - 1.2. De re: $\exists x (x = \text{frantziako erregea} \wedge \Box Bx)$ (faltsua, ez baita existitzen inongo Frantziako erregerik gaur egun)
2. "Beharrezkoa da euria egiten duenean kalean dabilen jendea bustitzea"
 - 2.1. De dicto: $\Box \exists x [x = \text{kalean dabilena} \wedge (p \rightarrow Bx)]$ (faltsua, ez da derrigorrezkoa kalean norbait egotea)
 - 2.2. De re: $\exists x [x = \text{kalean dabilena} \wedge \Box (p \rightarrow Bx)]$ (egiazkoa. Kalean dabilen norbait baldin badago, beharrezkoa da euria egiten badu bustitzea.)
3. Duela urtebete Estetika ikasgaiko irakaslea mutil bat zen
 - 3.1. De dicto: $\Box \exists x [x = \text{estetikako irakaslea} \wedge Mx]$ (egiazkoa, duela urtebete existitzen zelako x bat (Jonhatan) zeina estetikako irakaslea zen eta mutila zen)
 - 3.2. De re: $\exists x [x = \text{estetikako irakaslea} \wedge \Box Mx]$ (faltsua, existitzen baita x bat estetikako irakaslea dena (Cristina) baina duela bi urte ez zen mutila)
4. Beharrezkoa da ikasle kopurua 10 baino handiagoa izatea
 - 4.1. De dicto: $\Box \exists x [x = \text{ikasle kopurua} \wedge (x > 10)]$ (derrigorrez, ikasle kopuruak 10 baino handiagoa izan behar duela adierazten du)
 - 4.2. De re: $\exists x [x = \text{ikasle kopurua} \wedge \Box (x > 10)]$ (ikasle kopuru bat dagoela adierazten du zeina derrigorrez 10 baino handiagoa den)

5. Iraganean, Martinia edaten ari den gizonak iruzur egin zuen
 - 5.1. De dicto: $P \exists x (x = \text{martinia edaten duen gizona} \wedge Ix)$ (iraganean bazela martinia edaten zuen gizon bat eta honek iruzur egin zuela adierazten du)
 - 5.2. De re: $\exists x (x = \text{martinia edaten duen gizona} \wedge Ix)$ (adierazten du dela martinia edaten ari den gizon bat zeinak iraganean iruzur egin zuen)
-

KAPLAN ETA ERAKUSLEAK

7. ariketa orria.

Izenorde eta erakusleek betetzen duten papera argitu eta agertzen diren perpaus edo argudioen izaeran duten eragina azaldu.

1. “Gizakiak beti pentsatzen du bera errugabea dela.”

“Bera” izenordaina kasu honetan ez da erakuslea, aldagai lotua baizik. x aldagaia ordezkatzeko duela suposatuz dezakegu honako formula batean $H \{Gx \rightarrow Bx(Ex)\}$. Hau da, beti x gizakia bada, x horrek usteko du x hori errugabea dela.

2. “Miren presaka zebilen. Berak ahaztu zituen txanponak”.

“Bera” izenordaina kasu honetan anafora bat egiteko erabiltzen da, aurretik aipaturiko zerbait ordezkatzeko, kasu honetan Miren.

3. “Gizaki bakoitzak bere ama maite du”

“Bere” posesibo bat da. Karakterrak norbaiten (3. pertsona) zerbait adierazten du eta testuinguru bakoitzean eduki bat finkatuko du. Esaldiaren edukia aldatu egingo da, pertsona bakoitzak bere ama maite duela esatean Iratik Ana maite duela, Iñigoren kasuan Iñigok Edurne maite duela...

4. “Miren korrika hasi zen, baina trabatu ondoren, bera jausi zen”.

“Bera” izenordaina kasu honetan anafora bat egiteko erabiltzen da, aurretik aipaturiko zerbait ordezkatzeko, kasu honetan Miren.

5. “Berak hotz sentitu zuen berehala. Miren hotzbera da.

“Bera” izenordain bat da. Karakterrari dagokionez, gertu dagoen norbait seinalatzeko funtzioa du eta, horrela, testuinguru bakoitzean eduki bat finkatuko da, seinalatzen den pertsonaren arabera. Kasu honetan, edukia bigarren esaldiak adierazten digu, Miren dela seinalatu nahi dela. Honela, esan nahi dena argitzen da.

6. “Bera da errektore berria”

“Bera” izenordainaren karakterrak gertu dagoen norbait seinalatzeko funtzioa du. Eduki hori argitzeko testuingurua ezagutu behar dugu, seinalatzen den pertsona nor den jakiteko, testuinguru horretan karakterrak eduki bat finkatuko baitu.

7. “Nik pentsatzen dut, beraz ni banaiz”

“Nik” eta “ni” hizlari berari erreferentzia egiteko funtzioa dute (karakterra). Tetsuinguru batean edo bestean edukia aldatu egingo da. Esaldia nik esaten badut “Iratik pentsatzen du, beraz, Irati bada”, Gorkak esaten badu, aldiz “Gorkak pentsatzen du, beraz Gorka bada” izango da edukia.

Argudioaren ziaerari dagokionez, “nik pentsatzen dut” analitikoki egiazkoa da, bere karakterrak edozein testuingurutan hizlariari erreferitzeko funtzioa du eta onartzen badugu hitz egiten duenak pentsatzen duela, orduan edozein testuingurutan egiazkoa izango da. Aldiz, edukiaren ildotik, kontingentea da. Badira eta egoera nahiz mundu posibleak non nik ez dudun hitz egiten, ez dudun pentsatzen eta, beraz, non ezin den presmisa horietatik nire existentzia ondorioztatu. Nire existentzia bera kontingentea da.

8. **“Nik pentsatzen dut. Pentsatzen duten guztiak badira. Beraz, ni banaiz”**

“Ni” eta “nik” izenordainei dagokionez, aurreko galderaren erantzun berbera. Karakterrari esker esaldia analitikoa da, edozein testuingurutan egiazkoa, baina edukiari dagokionez kontingentea. “Guztiak” zenbatzaile orokortua da (\forall) eta $\forall x(Px \rightarrow Ex)$ presmisa batzen dio argudioari: x guztientzat, hauek pentsatzen badute existitzen direla. Aurreko argudioaren antzekoa da, premisa hau gehituta.

9. **“Hau esku bat da. Hau esku bat baldin bada, orduan ez naiz garun bat kupela batean. Beraz, ez naiz garun bat kupela batean”.**

“Hau” benetako erakuslea izanik, testuingurua eta hitzunaren asmo interpretatiboa kontuan izanik, badakigu “hau” hitzunaren eskua erreferitzeko erabiltzen dela. “Hau” hitzun baten eskua izanik eta ez beste edozein gauza, ondorioztatzen dira hitzun horren ezaugarriak. Hots, hitzun hori ez dela kupel baten barruan dagoen garuna.

10. **“Ni existitzen naiz”**

“Ni” izenordainaren funtzioa, karakterraren bidezkoa, hitzunari erreferitzea da. Bide horretatik, karakterra kontuan izanik proposizioa analitikoa da, apriori badakigu edozein testuingurutan egiazkoa izango dela. Hala ere, egia kontingente bat da. Izan ere, edukiak testuinguru batean, adibidez gaur eta orain nik esanda “Irati existitzen dela” adierazten du. Eta hori, egia kontingente bat da.

11. **“Ni hitzuna naiz”.**

Aurreko galderaren erantzun berbera, existentzia ordez hitzun izaeraz hitz egiten da. A priorizko egia analitiko kontingentea.

12. **“Ni beti izango naiz hitzuna”**

10. galderako erantzun antzekoa. “Ni” izenordainaren funtzioa hitzunari erreferitzea da. Bide horretatik egia logiko baten aurrean gaude, edozein testuingurutan hitzuna beti izango baita hitzun ($p \rightarrow p$). Alabaina, kontingentea da edukiari dagokionez.

13. **“Ni hotsak ahoskatzen ari naiz”**

12. galderakoe rantzun berbera. A priorizko egia analitiko kontingenta.

14. **“Ni isilik nago”**

“Ni” izenordainaren karakterrari dagokionez, hitzunari erreferitzeko funtzioa du. A priori jakin dezakegu, beraz, esaldia faltsua dela edozein testuingurutan. Hala ere, edukiari dagokionez, ezin da

ondorioztatu beharrezkoa dela ni isilik egotea, edo beti egongo naizela isilik. Posible da esaldia nik esanda "Irati isilik dago" izatea edukia eta hori egiazkoa izan daiteke testuinguru batzuetan.

15. "Ni hotsak ahoskatzen ari naiz. Beraz, banaiz"

Karakterrari dagokionez, "ni" hitzuna errferitzeko dago hor, Bide horretatik, "ni ahoskatzen ari naiz" a priozko egia logikoa da, edozein testuingurutan beti izango delako egia hitzuna ahoskatzen dabilela. Onartuz gero ahoskatzen duen oro existitzen dela, premisa beti izango denez egiazkoa, argudioaren ondorioa onartzera beharturik gaude: hitzuna beti existituko da. Alabaina, edukiari dagokionez, tetsuinguru bakoitzean karakterrak bat finkatuko du (esaldia nork esaten duenaren arabera) eta eduki hori kontingentea da. Hau da, nik eta orain esanda "Irati ahoskatzen ari da, beraz Irati bada" adieraziko nuke eta argi dago hor premisa ez dela derrigorrez egiazkoa, eta ezta ondorioa ere. Nik hitz egitea eta ni existitzea kontingenteak baitira.

16. "Ni gipuzkoarra banaiz, orduan gipuzkoarra naiz".

17. "Beharrezkoa da ni existitzea"

Faltsua da. "Ni" izenordainak hizlaria erreferitzeko funtzioa du eta apriori badakiguegiatzkoa izango dela testuinguru guztietan. Alabaina $\models \phi$ horretatik ezin da $\models \square \phi$ ondorioztatu. Karakterrak testuinguru bakoitzean eduki bat finkatuko du, nire kasuan "beharrezkoa da Irati existitzea". Eta eduki hori, kontingentea da. Ni existitzen naizela egiazkoa da, baina posible zen ez izatea.

18. "Ezinezkoa da ni ez existitzea".

Faltsua da. Goiko galderan ikusten da "ni"-re karakterrak "ni existitzen naiz" a priori egia analitiko egiten duela, edozein testuingurutan egiazkoa izango dela. Alabaina, edukiari dagokionez hizlari bakoitzak mundu eta momentu horretan existitzen dela finkatzen du. Horien existentzia kontingentea da, baina gutxienez bada mundu bat non hizlaria existitzen den, hain zuzen ere esaldia esaten duen une eta mundua.

19. "Jainkoa existitzen bada, beharrez existitzen da."

Faltsua. Existentzia kontingentea da, nire ustez, baita Jainkoarena ere. $\models \phi$ -tik ezin da $\models \square \phi$

20. "Ni nahiagoko nuke orain hitz egiten ez egotea."

"Ni" izenordainaren karakterrari dagokionez, honek hizlaria erreferitzeko funtzioa du. HOnekin bakarrik ezin dugu jakin ea esaldia egiazkoa edo faltsua den. Karakterrekin testuinguru bakoitzean eduki bat finkatuz, ahalko gara gai izan esaldiaren egiabalia zehazteko. Adibidez, esaldia nik esaten badut orain eta hemen "Iratik nahiagoko luke orain hitz egiten ez egotea" adieraziko luke eta momentu horretan nire nahien barnean sartzan bada isilik egotea egiazkoa izango da. Beste testuinguru batean, gerta liteke ni gustora egotea hitz egiten eta esaldia faltsua izatea. Betse tetsuinguru batean hizlaria beste norbait izan daiteke eta haren nahiak ezagutu beharko ditugu esaldia egiazkoa edo faltsua den esateko.

Ebalua itzazu ondoko adierzpenak (aleak suposatutako testuinguru batean kokatuz):

1. “Ni ez naiz existitzen”

“Aleak suposaturiko testuinguru batean kokatuz, (Instanteak) kontuan hartuz, “ni” izenordainak momentu honetan eta hemen esaldia nik esanda “Irati ez da existitzen” adierazten du. Faltsua da, baina beste momenturen batean, adibidez ni hil ostean, egiazkoa izan daiteke.

2. “Ezinezkoa da ni ez existitzea”

“Ni” izenordainak orain eta hemen esaldia nik esanda “ezinezkoa da Irati ez existitzea”. Faltsua da, instante honetan ni existitzen bainaiz, nahiz eta posible zen hala ez izatea.

3. “Baliteke ni ez existitzea”

“Ni” izenordainak instante honetan, orain eta hemen, esaldia nik esanda “baliteke Irati ez existitzea” esan nahi du eta egiazkoa da, ni existitzen naizela egia bada ere, egia kontingente bat da, posible baitzen hala ez izatea.

4. “Beharrezkoa da ni existitzea”

“Ni” izenordainak instante honetan, orain eta hemen, esaldia nik esanda “beharrezkoa da Irati existitzea” esan nahi du eta faltsua da, aurreko galderan esan dudan moduan nire existentzia kontingentea baita.

5. “Orain seinalatzen ari naizen pertsona hura da”

6. “Ni” izenordainaren esanahia “adierazpen ale hau ahoskatzen ari den pertsona” da.

Egia logikoa da, edozein testuingurutan eta, beraz, baita orain ere definizioa betzen da. Testuinguru bakoitzean eduki bat finkatuko du, Irati, Gorka, Amaia...

7. “Beharrezkoa da seinalatzen ari naizen pertsona hura ziatea.

8. “Beharrezkoa da ilunabarreko izarra egunsentiko izarra izatea”

Une honetan egiazkoa da p : ilunabarreko izarra egunsentiko izarra dela, baina $\models p$ -tik ezin da $\models \Box p$ ondorioztatu. Gerta zitekeen hala ez izatea, beraz, ez da beharrezkoa. Are gehiago, egia hau a posteriori deskubrituko egia bat da.

9. “Agian ni ez nago hitz egiten”

Instante honetan, faltsua da, hitzuna beti baitago hitz egiten edozein testuingurtan. Orain eta hemen nik esanda faltsua da, baina gerta zitekeen egiazkoa izatea, ni ez bainaiz derrigorrez hitzuna beti.

10. “Behar bada, nik ez dut gorputzik”.

Aleak finkaturiko instante honetan, hitzuna ni naiz eta esaldiak behar bada nik gorputzik ez dudala adierazten du. Orain faltsua da, ni gorputzdun gizakia bainaiz. Baina, hori kontingentea da, eta beraz, posible liteke nik gorputzik edukitzea, adibidez, ni hil eta handik urte askotara, behar bada nik ez dut gorputzik.

11. “Metro batek duen luzeera du.”

12. “Metro bat den baino luzeagoa izan ziteken”

“Metro bat”-en aleak suposatzen duen testuinguruan, hain zuzen ere metro bateko luzera adierazten du. 11. esaldia honakoaren parekoa da “hizlaria hitz egiten ari dena da”, eta esaldi hau bezalaxe, 11.a egia logiko bat da. Alabaina, ez da beharrezkoa, gerta zitekeelako “metro bat”-ek beste luzeera bat adieraztea beste munduren batea, azken buruan, luzeera parametroak gizakiok finkatu baitutugu. Hortaz, analitiko bada ere “metro batek duen luzeera du” kontingentea da. Ondorioz, 12. esaldia, “metro bat den baino luzeagoa izan ziteken” egiazkoa da.

D. KAPLAN: ERAKUSLEEI BURUZKO HAUSNARKETA.

9. Ariketa orria.

1.- Zein da Kaplanek erakusleen artean egiten duen bereizketa?

Kaplanek batetik, deitiko hutsak eta, bestetik, benetako erakusleak bereizten ditu. Deitiko hutsen kasuan, testuinguruaren arabera eduki bat edo beste finkatzen da, egiten den erreferentziaren arabera. Esate baterako “ni antiguotarra naiz” egiazkoa da nik esanda, edukiak dioelako hitzuna antiguotarra dela eta ni, hitzuna, antiguotarra naizelako; baina faltsua izango da Gorkak esanda, bera Elizondokoa baita. Benetako erakusleen kasuan, testuinguruaz gain hitzunaren asmo interpretatiboen arabera izango da edukia. Mota honetakoak dira *hau, hori, hura*, adibidez. “Hau gustatzen zait” diogunean, esaterako, jakin behar dugu hitzunak zerri egiten dion erreferentzia “hau” esatean.

2.- Nola definitzen ditu Kaplanek “indize propioak”?

Indizearen nozioak erakusleak dauden esaldien estentsioa determinatzen duten faktore kontestualak biltzeko nozio bat da. Indize batek (i) koordinada asko ditu: m, mundu bat; t, denbora bat; p=(x,y,z), posizio bat; a, agente bat... Koordinada hauen aldaketen arabera, enuntziatuaren egiabaliao aldatu egiten da. Kontsideratzen zen enuntziatu bat logikoki egiazkoa zela indize orotan egiazkoa bazen, eta hala zenean, enuntziatu hori beharrezkoa zen. Hau da $\models \Phi$, orduan $\square \models \Phi$. Honek arazoak zekarren, izan ere nahiz eta “ni hemen nago orain” egiazkoa izan indize orotan, faltsua da “beharrezkoa da ni hemen egotea orain”, “Irati Zubia Donostian egotea 2017ko azaroaren 26an” kontingentea baita. Hortaz, indizearen nozioa orokorregia zenez, izan ere koordinada horiek ez dira batere zehatzak, Kaplanek “indize propioak” proposatu zituen erakusleen logikarako. Indize propio hauek indizeen koordinadekin definitzen dira (m, mundua; x, agentea; p, posizioa; t, denbora) baina modu batean non m munduan, x p posizioan lokalizatzen den t denbora batean. Honela, restringio baldintza batzuk eskaintzen dira.

3.- Zer da adierazpen baten *karakterra*? Eta adierazpen bati dagokion *edukia*?

Katakterra adierazpen baten esanahi linguistiko konbentzionalarekin lotzen da. Edukia aldiz esaten den adierazpen baten eduki proposizionalarekin, hau ebaluiatzeko mundu posibleetara jotzen dugu. Karakterren bidez, eduki bat edo beste finkatuko dugu testuinguruaren arabera, karakterra deitzen baitio Kaplanek adierazpen batan testuinguruaren arabera edukia determinatzen duen adierazpenaren *zentzuari (83.or)*.

4.- Zein da “Ni” izenordenari dagokion karakterra? Zein da “ni” izenordeenaren erabilpen bati dagokion edukia? Adibideak ipini itzazue. Nola definitzen da adierazpen perpaus bati dagokion edukia?

“Ni” izenordainaren karakterra terstuinguru baokoitzean, mundu posible orotan, hitzunak bere buruari erreferentzia egitea da. “Ni” izenordainak, kontzpetu indibidualaren funtzioa betetzen du. Hau horrela, testuinguru bakoitzean karakter horren bidez eduki bat edo beste finkatuko du, erabiltzen duen hitzuna testuinguru bakoitzean denaren arabera. Adierazpen perpausen edukia, karakter horrek finkatuko du, testuinguruaren arabera ezberdina izango delako.

Adibidez, “Ni orain liburutegian nago”, egiazkoa da ni, Irati Zubia liburutegian nagoelako. Beste testuinguru batean, adibidez tabernan banego, edukia aldatzeaz gain, esaldia faltsua da. Hau gertatzen da, erakusleeak dituzten esaldien kasuan edukia testuinguruaren arabera karakterren bidez aldatzen delako. Erakuslerik gabeko adierazpen perpausen edukia konstantea da, ordea, ez da testuinguruaren arabera aldatzen. Adibidez, “Txindoki mendiak 1.346m-ko altuera du” adierazpenak eduki berbera du liburutegian esan, tabernan esan edo beste edozein testuingurutan esan.

5.- Nola definitzen ditu Kaplanek egia logikoak? Ipini itzazu deitikoren bat erabiliz eraikitako egia logiko bat.

Egia logikoak testuinguru orotan egiazkoak diren proposizioak dira. Deitikoak erabiliz sortzen ditugun proposizioen kasuan, “indize orotan” egiazkoa den proposizioak izango dira egia logikoak. Adibidez, “ni orain hemen nago”. Esaldi hori egiazkoa izango da edozein testuingurutan, aldiz, hortik ezin dugu ondorioztatu *beharrezkoa* denik. Esaldia analitikoa (egia logikoa da, a priori bere esanahiagatik egiazkoa dela esan dezakegu testuinguru edozein delarik ere), bere karakterrak analitikoak direlako; baina bere edukia (zeina testuinguruaren arabera aldatzen den), kontingentea da.

6.- Kaplanen ikuspegitik egia logiko guztiak *metafisikoki beharrezkoak* al dira? Zergatik? Exenpluak jarri itzazue.

Ez. Esate baterako, egia logiko bat da “ni orain hemen nago”. Baina aurreko galderan esan dudan moduan, hori ez da metafisikoki beharrezkoa. Karakterrari dagokionez, edozein testuingurutan egiazkoa izango denez egia logikoa dela diogu. Alabaina, karakter horren bidez finkatzen den edukia, nire kasuan ni, Irati Zubia, orain, 2017ko azaroaren 26an, hemen, Donostian, egotea ez da beharrezkoa, egia kontingentea da. Gerta zitekeelako ni orain hemen beste nonbaiten egotea. Neure existentzia bera ere kontingentea da.

7.- Erreferentzia zuzenki hartzen duten adierazpen guztiak designatzaile zurrinak al dira? Zergatik? Exenpluak jarri itzazue.

Ez, erreferentzia zuzenki hartzen duten adierazpen guztiak ez dira designatzaile zurrinak. Adibidez, “Donostia”-k erreferentzia zuzenki hartzen du, baina ez da designatzaile zurrin bat, bere erreferentzia kontingentea baita.

8.- Zer da erakusle batekin lotutako erakustaldia? Adibideak ipini itzazu.

Benetako erakusleak (hau, hori, hura) erabiltzean, erakustaldiaren bidez entzuleari zeri buruz ari garen, “demonstratum”-a seinalatzen diogu. Hau keino baten bidez egin daiteke (hatzamarrarekin seinalatuz, adibidez) edota hizkuntzaren bidez, (deskripzioak erabiliz). Adibidez, “ekarri liburu hori” esan eta eskuaz mahai gainean dagoen liburua seinalatzen dugunean edo “ekarri [mahai gaieko] liburu hori” esaten dugunean.

9.- Pentsamendu baten eraginkortasun kognitiboa (=significación cognoscitiva)? zerrekin loturik dago bere karakterrarekin edo bere edukiarekin? Zergatik?

Eraginkortasun kognitiboa karakterrarekin lotzen da. Karakterraren ideia gogoan izanik, egoera kognitibo batean pentsamendu eduki (objektu) bat edo edo beste izango dugu pentsamenduaren karakterraren arabera. Adibide gisa Pumantarren esperimendua erabiliko dut Kaplanek bezalaxe. Imagina ditzagun bi biki identiko, Castor eta Polux. Bi hauek egoera kognitibo bera izatea lortzen dugu. Biek “nire anaia ni baino lehen jaio zen” pentsatzen dutenean, ordea, gauza ezberdinak pentsatzen dituztela esango dugu, bakoitzaren pentsamenduaren edukia desberdina da bestearekiko. Adierazpen horren karakterrak testuinguru batean eduki bat finkatzen duen moduan, eraginkortasun kognitiboak testuinguru batean pentsamendu eduki bat finkatzeko funtzioa izango du. “Nire anaia ni baino lehen jaio zen” adierazpenaren eraginkortasun kognitiboak, hau pentsatzen duen pertsonak bere anaia bera baino zaharra delako pentsamendua finkatzeko funtzioa du. Bia anaien kasuan eraginkortasun kognitiboa berdina da. Alabaina, gauza ezberdinak pentsatzen dituztela diogu, hots, eduki ezberdinak identifikatzen ditugu: Castorrek uste du Polux bera baino zaharragoa dela eta Poluxek uste du Castor bera baino zaharragoa dela. Ezberdintasun hori eduki kontua da, karakter berak bi testuinguru ezberdinetan eduki ezberdinak finkatu ditu. Bide beretik, eraginkortasun kognitibo berak bi pentsamendu eduki finkatu ditu.

10.- Nola aztertuko luke Kaplanek ondoko identitatea? “Dhau [egunsentiko izarra] = dhorri [ilunabarreko izarra]”.

11.- Nola aztertuko luke Kaplanek ondoko perpausak erabiliz egindako baieztapenak:

11.1 “Hiru hau [Donostia seinalatuz] Donostia da”

Kasu honetan *hau* benetako erakustaldea erabiliz eta erakustaldi baten bidez lagunduta, Donostiari zuzentzen zaiola adierazi nahi zaio entzuleari. Besterik gabe, Donostia seinalatzea da helburua. Dhau=dhori erlazioa ematen da.

11.2 “Hiri hau [Donostia seinalatuz] Gipuzkoako hiriburua da”

Kasu honetan, aurrekoan bezalaxe hau benetako erakuslea erabiliz eta erakustaldi baten bidez lagunduta, Donostia hiria seinalatzen da eta honen inguruko deskripzio bat ematen da aditzera: gipuzkoako hiriburua dela.

11.3 “Gipuzkoako hiriburua den hiri hau Gipuzkoako hiriburua da”

Kasu honetan, tautologia bat aurkezten zaigu.

BI-DIMENTSIOZO SEMANTIKA

10. ariketa orria

Finka ezazu arrazoituz ondoko adierzpen eta argudioen jitea ikuspegi metafisiko eta epistemikotik eta bereiz itzazu designatzaile zurrunak diren osagaiak.

1. Metro bat neurri-barra patroiazen luzeera da.

·Designatzaile zurruna “metro bat” da eta neurri-barra patroiazen luzeera designatzeko erabiltzen da.

·Metafisikoki kontingentea da. Gure munduan, neurri-barra patroia zehatz bati deritzogu “metro”, baina gerta zitekeen beste neurri luzeera bat hartu izana estandar gisa. Halaxe gertatzen da ere, esate baterako, uraren irakite puntuarekin, hau hartzen baita 100°C-entzako patroia edo estandar gisa. Kontingentea da, beraz.

·Epistemikoki *a posteriorikoa* da. *Kanpoko mundua* deritzogunari erreparatu behar diogu hau egia den edo ez jakiteko, aldeaz aurretik ezin da erabaki, *a posteriori* edo gerora egiten da.

2. Ura H₂O da.

·Designatzaile zurrunak “ura” eta “H₂O” dira. “Ura” substantzia likido urtsua designatzeko erabiltzen da, edaten dugun hori, itsaso eta ibaietan dagoena... “H₂O” substantzia bera designatzeko erabili daiteke gaur egun, deskubritu baitugu hain zuzen ere substantzia horren izakera horrelakoa dela. Deskripzio baten modukoa da.

·Metafisikoki kontingentea da. Izan ere, nahiz eta gaur egun badakigun ura deritzogun hori funtsean bi hidrogeno molekula eta oxigeno molekula bat elkartuz osatzen dela, “ura” deitzen diogun hori beste osaketa ezberdinak dituen substantzia izan daiteke (hala nola, gatz mineralak dituen). Gainera, gerta liteke beste mundu posible batean edaten dugun substantzia urtsuak beste osaketa bat izatea.

·Epistemikoki: *a posteriorikoa*, gerora deskubritu baitzen uraren osaketa halakoa zela. Geroztik, ura bera designatzeko erabili izan da “H₂O”

3. Hauxe idazten ari den hori ni naiz.

·“Hauxe idazten ari den hori” deskribapen mugatu bat da, pertsona jakin bat designatzen duena, hain zuzen ere deskripzio hori betetzne duen hura. “Ni” izenordain deitiko da, hizlaria erreferitzeko erabiltzen dena, testuinguruaren arabera bat edo beste izango dena, aurreko adibidean bezalaxe.

·Metafisikoki kontingentea da. Egia logiko bat da, edozein testuingurutan beti egiazkoa izango delako baina kontingentea da. Demagun esaldia nik esaten (hobe idazten) dudala orain. Esan nahiko luke “ni, Irati, hau idazten ari naizen hori Irati naizela”. Baina, ez da beharrezkoa.

·Epistemikoki: a priorizkoa da. A priori jakin dezakegu egiazkoa dela edozein testuingurutan.

4. Nire N.A.N.-ren zenbakia duen hori ni naiz.

·“Nire N.A.N.-ren zenbakia duen hori” deskribapen mugatu bat da, pertsona jakin bat designatzeko erabiltzen dena, hain zuzen ere deskripzio hori betetzen duen hura. Zenbaki jakin hori designatzaile zurrun bat da. “Ni” izenordain deitiko bat da. Bere karakterrak hizlaria designatzeko funtzioa betetzen du eta bere edukia testuinguru jakin batean esaldia esaten duen hiztuna izango da.

·Metafisikoki kontingentea da, izan ere, ez da beharrezkoa zenbaki horrek ni designatzea. Beste mundu posible batean zenbaki horrek beste norbait designa zezakeen, edota inor ere ez.

·Epistemikoki *a posteriorizkoa da*, esaldia egiazkoa den jakiteko hain zuzen erenire N.A.N zenbakia begiratu beharko genuke.

5. Ni Saul Kripke naiz.

·“Saul Kripke” designatzaile zurruna da.

·Metafisikoki kontingentea da. Egiazkoa da soilik Saul Kripkek esango balu. Gainera, gerta liteke Saul Kripkek beste izen bat eduki izana, edo beste inguru batean hezia izanagatik, momentu horetan bere identitatea osatzen duten ezaugarriak guztiz ezberdinak izatea.

·Epistemikoki *a posteriorizkoa da*, esaldia egiazkoa den jakiteko esaldia nork esan behar duen konprobatu behar dugu, ezin dugu alde aurretik (*a priori*) zehaztu.

6. Iturritik irteten den substantzia likido urtsua ura da.

·“ura” designatzaile zurruna da, “iturritik irteten den substantzia likido urtsua” deskribapena asetzen duen hura designatzeko erabiltzen dena, besteak beste.

·Metafisikoki kontingentea da. Imagina daiteke erraz mundu posible bat non “ura” ez den iturritik irteten den substantzia urtsua. Are gehiago, duela urte batzuk ez zen iturritik ere existitzen. Gainera, gaur egun gure iturritik irteten den likidoa eta garai haietan edaten zen likidoaren osaketa ezberdina da neurri batzuetan.

·Epistemikoki *a posteriorizkoa da*. Mundu erreala, iturritik irteten den likido hura kasu honetan, begiratu behar dugu esaldia egiazkoa edo faltsua den erabakitzeko.

7. H₂O H₂O da.

·“H₂O” designatzaile zurruna da, bi H eta O molekula bat elkartzean osatzen den substantzia designatzeko erabiltzen da.

·Metafisikoki beharrezkoa da. Saul Kripkeren “Identitatea eta Beharrezkotasuna” (1971) testuan ikus dezakegun moduan “baieztapenak beharrezkotzat jo ditzazkegu, baieztapen horietan aipaturiko objektuak existitzen diren aldiro baieztapenak egiazkoak baldin badira” (Kripke, 1971, 197. or). Gainera, identitate baieztapen bat da, objektu bat beti izango da identikoa bere buruarekiko. Hau mundu posible guztietan gertatuko da.

·Epistemikoki *a priorizkoa da*. Identitate baieztapen honek objektu bat bere buruarekiko identikoa dela adierazten duenez gero, alde aurretik badakigu egiazkoa izango dela.

8. Sentitzen dudan min hau nire nerbio-zuntzen E asaldura da.

·"E asaldura" eta "mina" designatzaile zurunak dira. "E asaldurak" alterazio mota jakin bat designatzen du eta "minak" sententzio bat.

·Metafisikoki kontingentea da. Batetik, min deritzon sententzio horrek beste jatorri bat izan zezakeelako, ez nerbioena. Bestetik, gerta zitekeelako min horren jatorria nerbioetan egonagatik ere, ez izatea asaldura jakin horren ondoriozkoa.

·Epistemikoki *a posteriorizkoa* da, gerora deskubritu izan baita biologia eta medikuntzaren aurrerapenei esker min mota horren iturria "E asaldura" izendatua izan den nerbio zuntzen alterazio jakin baten ondoriozkoa dela.

9. Iturritik irteten den likido urtsua ura da eta ura H₂O da. Beraz, iturritik irteten da H₂O.

10. Ura ezin da H₂O izan.

INPLIKATURAK

11. ariketa orria.

Ondoko zerrendako esaldi bakoitzeko inplikaturaren bat atera eta sailkatu ondoren esplikatu ezazu nola inferitu duzun.

1. Triangelu isozeleak bi alde berdin ditu.

Kantitate maxima bat urratzen da era agerian eta kantitate inplikatura bat sortzen da. Ez da informazio osoa ematen, hirugarren aldearen neurriaren inguruan ez baita ezer esaten, baina hain zuzene ere inplikatzeko du hirugarren alde horren neurria eta beste bina desberdina dela.

2. Mirenek hiru alaba dauzka.

Esaldi honek Mirenek gutxienez hiru alaba dauzkala esan nahi du, eta soilik hiru dituela ere inplikatzeko du. Kantitate maxima apurtzen da modu agerikoan, ez da informazio osoa ematen.

3. Bandera zuria da.

Esaldi honek inplikatzeko du bakea adierazten duela bandera horrek. *Bandera zuria* metafora baten modukoa da, kolore zuria bakearen irudia baita (uso zuria, adibidez). Kalitate inplikatura bat da, kalitatearen lehen maxima urratzen da kasu hauetan.

4. Umeak umak dira.

Kantitate lehen maxima urratzen da hemen, ez da behar den informazio guztia ematen, tautologiek berez ez baitute inolako informaziorik ematen. Esaldi hau bezalako tautologiak dira inplikatura honen muturreko adibideak. Esaldiak inplikatu dezake umeek umekeriak egiten dituztela, edo ez direla serioegi hartu behar.

5. George Bush Genio bat da.

Ironia kasu bat da non kalitate maxima bat urratzen da hemen: *ez esan faltsua dela uste duzun hori*. Esaldiak inplikatzeko du dioenaren kontrakoa, hau da, George Bush ez dela genio bat, aurkakoa baizik.

6. Gerla gerla da.

4. esaldian bezalaxe, tautologia bat da, non kantitate lehen maxima urratzen den. Inpliketzen dena da gerran edozerk balio duela, gerra serio hartu behar dela, gerran egiten direnak gerrak justifikatzen dituela...

7. Miren gaur garberako gizon batekin gelditu da.

Kantitate lehen maxima urratzen da, ez da informazio osoa ematen eta inpliketzen da Miren gaur ez dela bere gertuko gizon batekin gelditu (bere anaia, aita, semea...). Inplikatura orokortu bat da, "gizon bat", "etxe bat", "pertsona bat"... gisako adierazpenak erabiltzen direnean horrelako kasuak gertatzen dira.

8. Batzuk bulegoko afarira joan ziren.

Inplikatura eskalarra da. <guztiak, batzuk> eskala kontuan hartuz, eskaintzen duten informazioaren arabera ordenaturik. Inpliketzen da guztiak ez zirela joan afarira < a_1, a_2 > eskala dugunean, $a_2 \rightarrow \neg a_1$ betetzen da. Batzuk joan baziren, beraz, ez ziren denak joan.

9. Gutxi batzuk bulegoko afarira joan ziren.

Aurrekoan bezalaxe, inplikatura eskalar bat da. Eskala hau hartzen da kontuan <gutxi batzuk, batzuk> eta beraz, "gutxi batzuk" adierazten du esandakoa baino jende gutxiago joan zela afarira.

10. Uste dut bulegoko afarira joan zirela.

Inplikatura kausala da. Inpliketzen du esalearen ustearen arabera batzuk bulegoko afarira joan zirela, baina posible dela ez joan izana ere. Ez da ez bata baieztatzen ezta bestea ezeztatzen ere. Aldi berea, "batzuk bulegora joan ziren" esaldia egiazkoa eta faltsua izateko posibilitatea dagoela adierazten da.

11. Miren Bilbon edo Londonen dago.

Esaldiak inpliketzen du hizlariak ez dakiela ziur Miren Bilbon edo Londonen dagoen, baina bai biak aukerak aldi berean ezin direla eman.

12. Miren presaka etxe baten atarian sartu zen.

7. kasuan bezala, hemen ere elkarrizketa inplikatura orokortu bat dugu. Inpliketzen da Miren presaka sartu zen atari hura, ez dela bere ohiko etxea.

13. Egin behar dena, egin behar da.

4. eta 6. kasuetan bezalaxe, hemen ere tautologia bat dugu, non kantitatezko lehen maxima urratzen den.

14. Kafea epel dago.

15. Mirenek nota onak atera ditu.

16. Posible da Amaiur Koalizioak talde parlamentarioa osatzea eta posible da ez osatzea.

Inpliketzen da ez dagoela garbi ea Amaiur Koalizioak talde parlamentarioa osatzea edo ez. Esaldiak aurkakoak dio literalki, posible direla bi aukerak, baina kalitate maxima urratuz, kontrakoa adierazi nahi da, hain zuzen ere biak aldi berean ez direla izango.

17. Miren etxean dago, Peru ez badago.

Hemen ez da inplikutzen Peru etxean ez egotea Miren etxean egoteko kausa denik, baizik eta Miren ez dela batere ongi konpontzen Perurekin, ikusi ere ezin duela egin.

18. Ez dut gosaldut.

19. Ez, gosaldut dut. Eskerrak.

18 eta 19. kasuetan erlazio maxima, "izan zaitez errelebantea" urratzen da. Imagina daiteke biak galdera baten erantzunak direla, adibidez, "kaferik nahi al duzu?". Galdera horren erantzuna "bai" edo "ez" litzateke, baina bi kasu hauetan *harira ez datorren zerbait* esaten dela dirudi. 18. kasuak, baiezko erantzuna inplikutzen du, nahiz eta zaion galderari erantzuten zuzenean. 19. kasuak, berriz, ezezkoa, "gosaldut dut" ez baita erabat errelebantea. Kasu hori ere kantitate inplikatura gisa uler daiteke, behar dena baino informazio gehiago ematen baita.

20. Lasai, zauri honengatik ez zara hilko.

Kasu honetan hiperbole edo exagerazio bat dugu eta kantitatezko inplikatura bat sortzen da, kantitate lehen maxima urratuz, soberan dagoen gehiegizko informazioa ematen baita. Zauria larria ez dela inplikutzen da.

21. Miren batzuetan hemendik pasatzen da.

Inplikatura eskalar bat da. Eskala hau hartzen da kontuan <beti, batzuetan>. Garrantziaren arabera ordenaturik $\langle a_1, a_2 \rangle$ lehenak bigarrenak baino indar gehiago dauka eta hortaz lehenak bigarrena inplikutzen du, baina ez alderantziz ($a_2 \rightarrow \neg a_1$). Beraz, esaldiak inplikutzen du Miren ez dela beti pasatzen hemendik.

INPLIKATURAK (ETA 2)

12. ariketa orria

Zerrendatutako esaldi bakoitzeko inplikaturaren bat atera eta sailkatu ondoren azal ezazu nola inferitu duzun.

1. Beste planeta batean bizia egon liteke.

Inplikatura kausala da. Inplikutzen du posible dela beste planeta batean bizia egotea edo ez egotea. Esaldiak ez du ez bata ez bestea baieztatzen, bien posibilitatea inplikutzen du.

2. Zure izozkiaren zati bat ematen badidazu nire izozkiaren zati bat emango dizut.

Ez da inplikutzen, esaldiak hori badio ere, nire izozkia ematearen kausa zuk niri izozkia ematea denik. Inplikutzen duena da, zure izozkia probatu nahi dudala eta hori eginez gero trukean nirea emango dizudala.

3. Russel eta Whitehead Principia Mathematicaren liburuaren egileak dira.

4.

5. Uste dut Miren urruti bizi dela.

Inplikatura kausala da. Inplikutzen du nik uste dudanaren arabera Miren urruti bizi dela, baina gerta litekeela hori hala ez izatea. Ez da baietatzen ez Miren urruti bizi dela ez hori egia ez dela, bi aukeratarako posibilitatea inplikutzen du.

6. Eginda dagoena eginda dago.

Tautologia bat da. Kantitate lehen maxima urratzen da, ez baita inongo informaziorik ematen. Horrela, kantitate inplikaturaren bidez, zerbait egin ondoren hori aldatzerik ez dagoela inplikutzen da.

7. Ekaitz ostean barea dator.

Esaldi hau, normalean, arazo baten ondoren konponbidea edo lasaialdia datorrenean esan ohi da. Erlazio maxima urratuz (izan errelebantea), arazo baten ostean badirudi ez datorrela harira ekaitzaren ostean barealdia datorrela esatea, baina inplikatura moduan ulerturik bai, egoera bera deskribatzeko esamolde bat baita.

8. Hiru etxe ditu baina auto txiki bat gidatzen du.

Ohiko inplikatura bat da. Inplikutzen da hiru etxe izatearen eta auto txiki bat gidatzearen artean kontraste moduko bat dagoela. Hiru etxe izateak diruduna izatea inplikutzen du eta auto txiki bat gidatzeak, berriz, txiroa izatea.

9. Gaur gauean emakume batekin geratu da.

Elkarrizketa inplikatura bat da. "Emakume bat", "gizon bat", "etxe bat", "auto bat".. eta gisako espresioak erabiltzen ditugunean, bat hori ohikoa ez den zerbait dela inplikatu ohi dugu. Kasu honetan, inplikutzen da pertsona hori gaur gauean bere gertukoa ez den emakume batekin gelditu dela, hots, emakume hori ez dela bere ama, emaztea, bikotea, ahizpa...

10. Mirenek gaur goizean txeke bat sinatu du.

8. kasuaren antzekoa, elkarrizketa inplikatura. Inplikutzen da ez dela ohikoa Mirenengan txeke bat sinatzea.

11. Afaria ondo egon zen.

12. Estimutzen zaitut.

Ez dut oso ondo ulertzen zein testuingurtan kokatu behar den esaldi hau. Baliteke erlazio maxima, "izan errelebantea" urratu izana, esate baterako, " nahi duzu zerbait jateko?" edo gisako galdera adeitsu baten aurrean hiztunak esaldi honekin erantzutea. Kasu horretan, hizlariak inplikatu luke elkarrizketa kidearen adeitasuna eskertzen duela.

13. Amerikarren edo errusiarren satelitea izango da.

Esaldiak inplikutzen du hizlariak satelitea Amerikarrena nahiz Errusiarrena izateko posibilitatea kontenplatzen du. Ez du bata bestearen aldean baztertzen, baina ziur dago bi aukerak aldi berean ezin direla eman.

Sor itzazu inplikaturen adibideak ondoko egia-balioen konbinaketa hauekin:

1. Esandakoa egiazkoa eta inplikaturakoa faltsua.

Demagun Amaiak uste duela bere aterkia lapurtu diodala, baina Gorka izan da. Etxera bidean datorrela ekaitzak arrapatu du. Etxera iristean, nirekin haserre zera ohikatu dit: "blai eginda nago!".

Kasu honetan, Amaiak dioena egia da, goitik behera bustirik baitago. Inplikatzeko duena zera da, nire erruagatik dagoela bustirik, baina hori faltsua da.

2. Esandakoa faltsua eta inplikaturikoa egiazkoa.

“Zu zara nire bihotzeko azukre koxkorra”

3. Esandakoa egiazkoa eta inplikaturikoa egiazkoa.

Atzo arratsaldean, aita etxera iritsi eta oraindik arrikoa egin gabe zegoela ikusi zuen. “Sukaldea zikin zikin dago!” esaldiarekin, batetik sukaldea deskribatuz hau zikin zegoela esan zuen (eta egia zen) eta, bestetik, nik arrikoa egin ez nuela eta egin beharko nukela inplikatu zuen (eta hori ere egiazkoa da).

4. Esandakoa faltsua eta inplikaturikoa egiazkoa.

“Donald Trump benetan gizon jatorra da”. Esaten dena faltsua da, aldiz, ironiaz esaten denean, aurkakoa inplikatzeko da, hots, Donald Trump inondik inora ez dela gizon jatorra eta hori egia borobila da.

ARGUDIO ESENTZIALISTA.

13. ariketa orria.

Aztertu ondoko argudio hau de *dicto/de re* bereizketa aplikatuz.

1. Gaur galtzerdi beltzak daramatzat.

1.1. G_i

* $(G_x: x\text{-k galtzerdi beltzak daramatza; } i: ni)$

Hemen ez dago eragile modalik, ez dugu bereizketa erabili behar.

2. Ezinezkoa da gaur galtzerdi beltzak jantzen ez dituen norbait ni neu izatea

2.1. De dicto: $\neg \Diamond \exists x [\neg Gx \wedge (x=i)]$

* x : aldagaia

De dicto irakurketarekin premisak adierazten du ez dela posible x bat egotea zeinak ez dituen galtzerdi beltzak jantzi eta ez den nirekiko identikoa. Hau da, ukatu egiten du gaur galtzerdi beltzak jantzi ez dituen pertsona posible baten existentzia.

2.2. De re: $\exists x [\neg Gx \wedge \neg \Diamond (x=i)]$

De re irakurketaren arabera, premisak adierazten du baldin badago x bat zeinak ez dituen gaur galtzerdi beltzak jantzi, ez dela posible x hori eta ni pertsona bera izatea. Hau da, ukatzen duena da pertsona bat egotekotan gaur galtzerdi beltzak jantzi ez dituen, ez dela posible pertsona hau eta ni pertsona bera izatea.

3. Beharrezkoa da, gaur galtzerdi beltzak daramanez, galtzerdi beltzak gaur jantzen ez dituen ni ez naizen beste bat izatea.

3.1. De dicto: $\Box \{ G_i \rightarrow [\exists x (\neg Gx \wedge (x \neq i))] \}$

Irakurketa honen arabera, beharrezkoa da nik gaur galtzerdi beltzak jantzi ditudalako, existitzea norbait zeinak ez dituen galtzerdi beltzak jantzi eta zeina ez den nirekiko identikoa. Hau da, beharrezko biurtzen da nik galtzerdiak jantzi izanagatik galtzerdiak jantzi ez dituen beste pertsona bat existitzea.

3.2. De re: $G_i \wedge \exists x (\neg Gx \rightarrow \Box x \neq i)$

Irakurketa honen arabera, premisak adierazten du nik galtzerdi beltzak jantzi ditudanez, egongo balitz beste pertsona bat eta honek ez balitu galtzerdi beltzak jantzi, beharrezkoa litzatekeela pertsona hori eta ni bera ez izatea. Beharrezkoa dena kasu honetan ez da galtzerdi beltzak ez dituen norbait existitzea, baizik eta existitzekotan petsona hori eta neu bera ez izatea.

4. Horrela, gaur galtzerdi beltzak ditudanez, beharrezkoa da beltzak ez diren galtzerdiak jantzi dituen edozein ni ez izatea.

4.1. De dicto: $G_i \rightarrow [\Box \exists x (\neg Gx \wedge (x \neq i))]$

Irakurketa honen arabera, premisak adierazten du beharrezkoa dela x bat egotea zeinak galtzerdi beltzak jantzi ez dituen eta nirekiko identikoa ez den, nik gaur galtzerdi beltzak jantzi ditudalako. Hau da, dio beharrezkoa dela nik galtzerdiak jantzi ditudalako, niregandik identikoa ez den beste pertsona bat zeinak galtzerdi beltzak jantzi ez dituen, existitzea.

4.2. De re: $G_i \rightarrow [\exists x \Box (\neg Gx)]$

Irakurketa honen arabera, gaur nik galtzerdi beltzak jantzi ditudanez, beharrezkoa izango da edozein xrentzat x horrek galtzerdi beltzak jantzi ez baditu nirekiko identikoa ez izatea.

5. Ezinezkoa da gaur galtzerdi beltzak dauzkan norbait ni neu izatea.

5.1. De dicto: $\neg \Diamond \exists x [Gx \wedge (x=i)]$

Irakurketa honen arabera, ez da posible xren bat egotea zeinak gaur galtzerdi beltzak jantzi dituen eta ni neu naizen. Galtzerdi beltzak jantzi dituen edonor existitzeko posibilitatea ukatzen da horrela.

5.2. De re: $\exists x Gx \rightarrow \neg \Diamond (x \neq i)$

Irakurketa honen arabera, gaur galtzerdi beltzak jantzi dituen norbait baldin badago, hura eta ni pertsona bera izatea ezinezkoa dela esaten da. Ukatzen dena identitate erlazioa da.

6. Ezinezkoa da niretzat ni neu ez izatea

6.1. De dicto: $\neg \Diamond \exists x [(x=i \rightarrow (x \neq i))]$

Irakurketa honetan nire existentzia bera ukatzen da.

6.2. De re: $\exists x [(x=i \rightarrow \neg \Diamond (x \neq i))]$

Irakurketa honetan, ez da ukatzen agente bat existitzen dela. Baizik eta badela x bat, eta x hori ni banaiz, ezinezkoa dela nire buruarekiko identikoa ez izatea.

7. Ezinezkoa da niretzat beltzak ez diren galtzerdiak gaur eramatea.

7.1. De dicto: $\neg \Diamond \exists x [x=i \rightarrow Gx]$

Irakurketa honen arabera, ezinezkoa da ni neu existitzea ere.

7.2. De re: $\exists x [x=i \rightarrow \neg \Diamond (Gx)]$

Irakurketa honen arabera, baldin badago x bat nire identikoa dena, ezinezkoa da x honek gaur galtzerdi beltzak eramatea. Ez da nire existentzia ukatzen, baizik eta nik galtzerdi beltzak eramateko posibilitatea.

8. **Honela, niretzat ezinezkoa da gaur beltzak ez diren galtzerdiak eramatea.**
9. **Beraz, nik gaur derrigorrez eramaten ditut gaur jantzita galtzerdi beltzak.**